

52

500 pezeta / 20 libera • 2000ko AZAROA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: JULIO ABASCAL
ZINEA FILOSOFIA JAKINTZA-
GAIAN • TEORIAK: HOWARD
GARDNER (II) PAULO FREIRE



Lanbide Heziketa
eta euskalduntze prozesua

GATA



gaia

LANBIDE HEZIKETA

Lan mundua euskalduntzeko lana hasia dago. Ikastetxe eta enpresa batzuk euren funtzionamendua euskalduntzeko plangintzak martxan jartzen ari dira.



JULIO ABASCAL

EHUko informatika fakultateko irakaslea

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

LANBIDE HEZIKETA eta euskalduntze prozesua

Elhuyar, Emun, Xabier Aramendi, Elay...

18 elkarrizketa

JULIO ABASCAL

24 Zinea filosofia jakintzagaietan

Seve Sánchez

28 ekarpena

Paulo Freire lau haizetara

Amagoia Etxeberria, Saioa Mujika eta Alaitz Muro EHUko ikasleak

31 berriak

KILI ETA KOLO haurrentzako materiala.

"Euskaraz mintza" proiektua. Presoak irakasle bihurtuta. Deialdiak...

36 argitalpenak

Mantxut, Zuzendaritza teknikak 1 eta Eskusoinuaz liburuak. Txirulaz CD.

37 teoriak

Howard Gardner (eta II)

Maria Luisa Sanz de Acedo

Argitaratzailea: **XANGORIN** Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia. 20160 LASARIE-ORTA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.15.45 Fax: 943/ 36.10.48. Posta Elektronikoa: hikhasi@antza.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airhxa Azpiroz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola, Mikel Estorba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulkariak: Inanol Aginre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbao, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAM Grafik maketazio, aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hikhasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2000/XI/3. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



hik hasiren

lan berriak askoz ere merkeagoak
harpidedunentzat



harpide zaitez!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria
Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160
LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA
Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

editoriala

azaroa

Baionako Uda Leku elkarteak hil ala biziko egoeran



Ipar Euskal Herrian ikastetxeaz kanpoko euskararen erabilpenean dagoen eskasia estali nahian lan egiten du.

Uda Lekuk aurrerajarritzea erabaki du. Botere publikoen laguntza ezak sortutako egoera larria, oso larria, izanik ere.

Uda Lekuk 17 urte daramazki Ipar Euskal Herrian haur eta gazte euskaldunei denbora libreka euskaraz igarotzeko zerbitzuak eskaintzen. Gainera, euskalduntzea bezain garrantzitsua da heziketa mailan burutzen ari diren lana, definitzen duten egitasmo pedagogikoa.

Egun, Uda Leku Elkarteak 203 familia eta 21 elkarte eta ikastetxeak osatzen dute. Kopuruari erreparatzen badiogu, Iparraldeko zati esanguratsu bat zalantzarik gabe. Beraz, bere lanarekin gizar-tearen beharren parte bati erantzuten ariko litzateke.

Uda Lekuren sektore berdinean lan egiten duten elkarte edo erakunde guztiek botere publikoaren laguntza jasotzen dute. Egin kontu: gainontzeko hauek guztiek beren aurrekontuen ia erdia jasotzen duten bitartean, Uda Lekuk %1 jasotzen du.

Bere sorreratik euskarazko zerbitzu publiko bat eskaintzeko ardura beregain hartu du, eta bide hau kasik bakarrik, laguntzarik gabe egin du. Erakutsitakoa erakutsita, zilegi dirudi dirulaguntza publikoa jasotzea, bizirauteko ezinbestekoa zaio, behintzat.

Xirrista eta Kometa euskarazko haur aldizkari bakarrak dirulaguntza ezaz hiltzen ikusi genituen ez dela asko. Uda Leku desagertuko balitz, euskarazko denbora li-

brearen munduan hutsunea sortuko litzateke, euskara eta erabil-tzaileak umezurtz utziz.

Baliagarriak diren lan tresnen desagertzearen azpian lanerako jende eza, ideien agortzea edo ilusioaren itzaltzeak eta nekeak beharko lukete. Ziur gaude hau ez dela Uda Lekuren egoera. Eta hori erakusten du elkarteak aurrera egiteko hartu duen erabakiak.

Uda Lekuk ausardiaz jokatu du. Eta orain ausardi horrek erantzuna merezi eta behar du. Erantzuna txanponetan beharko luke, hori litzateke behintzat bidezkoena.

Ez dugu Uda Leku horrela hil dezaten utzi behar. Euskararen herrian guztiak ditugu beharrezko-eta!

kronika

Urriaren 28 eta 29an elkartu ziren Okzitania FLAREP federazioko kideak, Frantziako estatuko hizkuntza gutxituen irakaskuntza elebidun publikoak biltzen dituen federaziokoak, alegia. Tartean Ikas-Biko lehendari Thierry Delobelek hartu zuen parte.

Federazioaren XIV. jardunaldietan hizkuntza gutxituen egoeraz, pedagogiaz eta formakuntzaz hitz egin zuten. "Korsikar adibidea" aztertu zuten. Matignongo akordioaren arabera, Korsikako eskoletan korsikar hizkuntzaren irakastea sistematikoki proposatuko da. Thierry Delobelen esanetan "Errepublikaren historian horrelako zerba it proposatzen den lehen aldia da eta eredu izan daiteke".

Izan ere, bere ustetan "uharte salbuespenaren harresiak gainditu beharko ditu".



Humanitateen erreformak zeresana ematen jarraitzen du

Jakina da Madrilgo Gobernuko Hezkuntza ministro Pilar del Castillo gutxieneko ikasgaien erreforma prestatzen ari dela. Orain dela aste batzuk entregatu zien lan tresna izan zen dokumentua PSOeri, CIUri eta Inaxio Oloveriri. Etorkizunean proposatuko dituen bi erret dekretuen oinarriak biltzen dira aipatu dokumentuan.

Gobernuak curriculumeko irakasgaien %55a berak zehazteko asmoa du berezko hizkuntza duten komunitate autonomoetan, eta gainontzekoetan %65a. Portzentaia horiek LOGSEk onartu aurretik, PSOEk komunitate autonomoekin hitzartu zituen eta

horien eskuetan utzi zuen edukien antolaketa. Geroztik, komunitateek eurek egin dituzte beren curriculuak eta erret dekretu autonomikoen bitartez onartu izan dira.

Horixe da hain justu egungo Hezkuntza Ministeritzak aldatu nahi duena. Bere nahia estatu osoko ikasle guztiak eduki berdinak eta maila berdinetan ikastea da.

Aitzitik, ez dira politikariak soilik Humanitateen erreformarekin kezkatuta dabilzanak. Hainbat intelektual ere gaiari bueltaka ari dira. Madrilgo Arte Ederretako Zirkuluan elkartu ziren urriaren azken astean Juan Pablo Fussi eta Jon Juaristi katedratikoak eta Juan Goytisolo eta Jose Maria Ridao idazleak. Guztiak bat egin zuten Hizkuntza eta Historia ikasgaiak Espainiako hizkuntz eta kultura aniztasunaren ikuspegi zabala eskaini behar dutela esaterakoan, betiere edonola ko ikuspegi zentralista edota periferikoa ekidinez. Euren iritziz, nazionalismoek Hizkuntzan eta Historian sortzen duten sakabanatzea ikusirik, irtenbide bakarra nazionalismo espainolaren ikuspegitik atera eta Hizkuntzaren eta Historiaren hezkuntza "tolerantea eta inegratzailea" bultzatzea da.

gure hezkuntza bideratzen ari direnak.

Ikastetxeetan erabat desagertuta dago

poesia

Joxe Mari Iturralde



NUParen politikak ez dio Nafarroako Hezkuntza sistemaren eskaerari erantzuten

Nafarroan euskarazko eredueta ikasten duten ikasleak gero eta gehiago dira. 3 urteko haurren %28,6 A ereduari matrikulatu da aurten eta %30,7 D ereduari. Ondorioz, irakasle euskaldunen beharra gero eta handiagoa da. Ez dago euskaraz irakasteko gaitasuna duen irakasle nahikorik. Aurten go ikasturtea gabezia horrekin hasi da Nafarroan, eta bereziki Bigarren Hezkuntzan.

Hori dela eta, bi bidetara jo du Nafarroko Gobernuak irtenbide bila. Lehenengo, lekualdatzearen eta birziklai-

saren bitartez hainbat lanpostu bete dira. Ondoren, INEMera jo du falta ziren langileen bila.

Lehen Hezkuntzarako irakasle euskaldunak aurkitzea errazagoa da Bigarren Hezkuntzarekin alderatuz. NUPn Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle izateko ikasketak euskaraz burutu daitezke. Ez da hori gertatzen Bigarren Hezkuntzaren kasuan. Hezkuntza Sistemaren beharra ikusita, ikasle horiek eskolak euskaraz emateko gaitasunarekin irten beharko lukete unibertsitateetik. Baina gaur egun hori ez da gertatzen. Momentu honetan NUPeko hizkuntz normalkuntza plana gelditurik dago eta lege berri baten esperoan daude, zeina murriztailea izango den zabaltzailea baino gehiago. Iaz NUPen matrikulatutako ikasleen %4,75a D ereduari ikasitakoa zen eta maila guztietako 1.800 ikasle euskaldunetatik 452k EGA titulua zeukaten. Unibertsitatean hori zaindu eta lantzen ez bada, ordea, hizkuntz gaitasuna ez dute hobetuko eta galtzeko arriskua izanen dute.

Egungo eskaintza oso murrizta da ikuspegi horretatik. Iazko ikasturtean 171 ikasgai eskaini ziren euskaraz, baina gehienak Lehen Hezkuntzako irakasle ikasketetan, eta ez Bigarren Hezkuntzan irakasle izan ditezkeen litzentziatuen karreretan.

Iraile programa aldatzeko eskatu dio Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari PP, PSE-EE, IU eta UAren botoekin onartutako lege besteko proposamenaren bidez. Irakasleak euskalduntzeko programa moldatu beharra ikusi dute alderdiok. Alde batetik, programaren "porrot handia" azterteko eskatu dute.

Bestetik, azterketak kalifikazioaren erdia baino gehiago ez baldintzatzea nahi dute, eta horren ordez etengabeko ebaluazioa erabiltzea. Era berean, ikasturte bakoitzean deialdi bi egitea eta proben emaitzak argitaratu ematea ere eskatu dute.

EA eta EAJ aldaketa horiek egitearen aurka agertu dira. Horien ustetan, proposamen horiek euskal hezkuntza sistemaren kalitatearen eta izaera elebidunaren aurka doaz. Gainera, irakasleen ebaluazio jarraiak azterketen kalifikazioaren erdia baino gehiago balio izateak ez luke kalitatea bermatuko hauen iritziz. Halere, gaur egun etengabeko ebaluazioa indarrean dagoela aipatu zuten bi alderdiok.

Azken 20 urteotan irakasleen euskalduntzea %5etik %60ra igo dela adierazi dute alderdi horietako kideek. Hori ikusita, oposizioak aipatzen duen porrota ukatu egin dute eta egindako lorpena "historikoa" izan dela adierazi dute.

GAIA

Lanbide Heziketa eta euskaIduntze prozesua



Irakaskuntzan euskararen normalkuntza aurreratua baldin badago ere, gizarteko hainbat arlotan oraindik hutsune nabariak daude. Lan mundua dugu horietako bat. Arlo hori euskalduntzeko lana hasia dago: Lanbide Heziketa ikasle euskaldunak prestatzen ari da, eta enpresak euren funtzionamendua euskalduntzeko plangintzak martxan jartzen ari dira.



Lanbide Heziketa eta euskarazko testugintza

Lanbide Heziketa berria martxan jartzearekin batera, familiak, heziketa zikloak eta tituluak ugaritu egin ziren. Merkatuaren beharretara eta eskaeretara egokitutako Lanbide Heziketa daukagu gaur egun. Lantegiek dituzten premien arabera heziketa ziklo batzuk edo beste batzuk eskaintzen dira.

Horrek mugikortasun handia dakar eta prestakuntza aldetik lan handia eskatzen du. Besteak beste, ikasmaterialen premia nabaria da, eta zer esanik ez euskarazko materialena.

Horretaz ohartuta daude Lanbide Heziketako irakasleak, administrazioa eta zenbait argitaletxe, eta esparru hori jorratzen ari dira, hots, euskarazko ikasmaterialak sortzen.

Elhuyarrek 25 urtetik gora daromatza liburugintzan, eta bere esparruetako bat Lanbide Heziketa izan da. Hutsune handienak zituen esparrua zela ikusirik hasi ziren liburuak kaleratzen. Dena dela, Lurdes Ansa arduradunak esan digunez *"erreformaren ondoren dena aldatu egin zen. Lehendik daukagun materiala eduki aldetik baliagarria izan badaitete ere, planteamendu aldetik, gai banaketa aldetik eta abar ezberdina da. Hori dela eta, materiala berritze-ari ekin behar izan diogu. Berriz ere zerotik abiatu gara. Hutsunea erabatekoa da eta premia izugarria"*.

Xabier Aramendi, Hezkuntza Sai-

leko Lanbide Heziketako ikasmaterialen koordinatzailea ere bat dator premia handia dela esaterakoan. Horregatik, duela hiru urte Hezkuntza Saila ere arlo horretako hutsuneak betetzeko ikasmateriala prestatzen hasi zen.

Abiapuntua

Heziketa zikloak hainbeste izanik eta testugintzaren hutsunea guztietan egonik, lehentasunak jarri behar dira, ezin baita material guztia aldi berean sortu eta kaleratu. Nonbaitetik hasi behar izaten da, eta Xabier Aramendik dioskunez, hasieran irizpide kuantitibo hutsa erabili zuten beraiek. *"Familia hedatuena zein ziren ikusi genuen eta haietarako materiala prestatu genuen. Iaz, aldiz, irizpide*



Goiko argazkian, Elhuyar elkarteko Lurdes Ansa eta Tere Barrenetxea. Hemengoan, berriz, Xabier Aramendi.





kuantitatiboa eta kualitatiboa biak erabili ziren. Fabrikazio Mekanikoa, Administrazioa eta Elektrizitatea eta Elektronika dira hemen hedatuena, baina horrez gain euskararen normalkuntza aldetik garrantzitsuak diren beste familia batzuk daude: Osasungintza, Gizarte eta Kultur zerbitzuak, Nekazaritza... Familia txikiak dira, baina lanterriak eta gizar-tea euskaldunduko badira, behar-beharrezkoa da esparru horietako profesionalak euskaldunduz. Arrazoi horregatik erabaki zuten familia horietako materiala ere prestatzea.

Elhuyarreko Lurdes Ansak esan digu bi bide jarraitzen dituztela zein material prestatu erabakitzeko. "Bate-tik, irakasle sare bat daukagu, lanbide eskoletan lan egiten dute eta gurekin harremana dute. Horiek esaten digute zein gai izango den garrantzitsua, zer premia dagoen, zer falta den eta abar. Horrela, arlo horietan zer egin dezakegun ikusten dugu. Bestetik, guk geuk ere ikusten dugu zer material dagoen, zer ez dagoen eta horren arabera erabakitzen dugu".

Zein material egin erabaki ondoren, sortu egin behar da eta lan horretarako ere antolatu egin behar da. Ansak dioenez, "irakasle sare horrekin harremanetan jarraitzen dugu eta

haiek bilduta dauzkaten apunteak hartzen ditugu. Apunte horiek osatu, egituratu, ariketak sartu eta curriculumera egokitzen ditugu". Ikasmaterialaren ehuneko handi bat irakasleek sortua da beraz, eta hori osatu egiten dute beste liburuak begiratu eta kontsultatu.

Administrazioak prestatzen dituen materialak ere irakasleek egingakoak dira. Aramendik azaldu digunez, "IRALERE bidez iaz Lanbide Heziketako 11 irakasle egin ziren honetara dedikatuta eta aurtun 15 daude. Irakasle horiek 15 eguneko prestatuntza ikastaro bat jasotzen dute, eta ondoren lau hilabetez jarduten dira ikasmaterialak sortzen. Premiak handiak badira ere, zehar lerroko modulu guztietarako testuliburuak edukitzea lortu da".

Liburuak eta Internet

Lanbide Heziketarako euskarazko materiala sortzeak lan asko eskatzen badu, merkaturatzeak ere baditu bere oztopoak. Ezen, ikasle taldeak txikiak eta sakabanatuak izanik, eta ikasgai asko hautazkoak eta espezifikoak direnez, argitaletxeentzat ez da errentagarria liburu horiek saltzea. "Administrazioak laguntzak ematen ditu, baina beste mailatan bezala" i-

rizten du Ansak. "Lanbide Heziketarako bereziak dituenek, planteamendu eta laguntza bereziak egon beharko luketela uste dut".

Liburuez gain, badago beste aukera edo bitarteko bat Lanbide Heziketako materiala eskuratzeko: Internet. Aipatutako aniztasunaren eta sakabanaketaren aurrean Internetek liburuek ematen ez duten aukera eta malgutasuna eskaintzen ditu, eta bide batez kostuak murrizteko aukera ematen du. "Talde oso txikiak egokia da daukagun materiala Interneten jartzea edonork erabiltzeko moduan. Horrela, hutsune hori betetzen dugu" dio Ansak. Lehendabiziko urtea da Elhuyarrek material hori Interneten jarri duela. Emaitza onak ematen baditu eta positiboa dela ikusten bada, bide hori ere jorratzen jarraituko dutela adierazi digu.

Lanbide Heziketan euskarazko materiala egiteak bi helburu dituela esan genezake. Bata, irakaskuntza bera euskaraz emateko materiala egon dadin bermatzea. Eta bestea, ikasketak bukatu eta lan mundura igaro ondoren, euskaraz lan egiteko trebatua egotea. Horrek, noski, enpresak euskaraz ikasi duen langilea hartzeko prest egotea eskatzen du. Hor dago bigarren apustua.

G

GATIA

Lanbide Heziketa eta euskalduntze prozesua

Enpresak euskalduntzeko plangintzak

Irakaskuntzan D ere-
dua gero eta zabalduagoa
egon arren, Lanbide Hezi-
ketako proportzioa beste
etapetakoa baino txikia-
goa da. Horrek gizartean
oraindik guztiz jabetu ez
garen alderdia islatzen
du; zenbat eta gehiago
hurbildu lan mundura, or-
duan eta garrantzi gutxia-
go ematen zaio euskarari.
Guraso, irakasle eta ikas-
leen aldetik euskararen a-
lorra lantzeko egon den
presioa ebo nahia txikia-
goa izan da lan mundutik
gertuago dauden adarre-
tan.

Horrek, halaber, lantegietan gerta-
tzen dena esplikatzen du. Enpresa ba-
tean langile euskaldunen portzentaia
altua izan arren eta ahozko harrema-
nak euskarazkoak izanagatik, horrek
oso isla txikia du enpresaren komuni-
kazio harreman formalean, laneko
prozeduretan, bileretan eta abar.

Nolanahi ere, gizartea gero eta
kontzienteago da oinarrizko heziketa
euskalduntzeak ez duela etorkizunik
horrek gizartean islarik ez badu. Ez da
nahikoa ikasleak euskalduntzea.
Gazteak banan-banan sartzen dira
lantegietan eta hango egituretan inte-
gratu behar dute. Hango hizkuntza
ohitura, egitura eta funtzionamendua
gaztelaniazkoa bada, gazte horiek
gaztelaniaz funtzionatuko dute esko-
laurretik hasita ikasketa guztiak eus-
karaz eginak eduki arren. Euskaraz i-
kasitako belaunaldi berriak ez du lan
mundua euskaldunduko, alderantziz
baizik.



Euskararen normalkuntzak beste
urrats bat eman behar du lan mun-
duan, eta badago horren kontzientzia
administrazioaren aldetik, euskalgin-
tzan dabilzanen aldetik eta gero eta
lantegi gehiagoren aldetik. Horrega-
tik, gero eta enpresa gehiago dira eus-
kalduntzeko plangintza martxan jar-
tzen ari direnak. Plangintza hauek en-
presaren ezaugarri eta premietara e-
gokitutako prozesu planifikatuak di-
ra, eta beren helburu nagusiak euska-
raren erabilera areagotzea eta enpre-
sa euskararen gestioaz jabetzea dira.



Juan Luis Arexolaleiba "Gatxi" eta Dani Larrea EMUN kooperatiba elkarteak.

Gaur egun era guztietako 50 enpresa inguru dabilta plan horietan: industria-lak, zerbitzuetaoak, kooperatibak, elkar-te anonimoak, euskaldun portzentaia altukoak, baxukoak... Horrelako plan integralak dituzten gehienak Bizkaia eta Gipuzkoakoak dira. Dena den, Araba eta Nafarroan enpresako batzordeak edo zuzendaritzak bultzatuta arlo hori jorratzen ari diren lantegiak ere badaude. Elhuyar, Emun eta Artez aholkularitza enpresak eta zenbait euskaltegiren laguntza eta zerbitzua jasotzen dute enpresa horiek planak abian jartzeko eta aurrera eramateko.

Emun kooperatiba elkarte orain dela hiru urte hasi zen lan eremua euskalduntzeko zerbitzuak eskaintzen. Gaur egun 25 enpresarekin ari da lanean, gehienak Debagoiena bailara-koak eta kooperatibak direlarik. Emunek euskararen erabilera areagotzeko planak eskaintzen ditu, eta baita euskarazko aholkularitza tekniko eta kalitatezko zerbitzu osagarriak ere. Euskalduntze planen helburu nagusia euskara zerbitzu hizkuntza izateko pausoak ematea da. Euskara erabil-



tzea bai idatziz eta bai ahoz, barneko nahiz kanpoko harremanetan, maila informalean zein formalean, betiere gauza eraginkor eta errealetatik hasita.

Horretarako, plan bat egin behar izaten da eta horrek bi etapa nagusi ditu: azterketa fasea eta diseinua, eta planaren garapena edo ezarpena. Lehenengo fasean enpresaren egoera aztertzen da: zenbat langile dauden, zenbat diren finkoak, adina, euskaldunen kopurua, jarrera... Argazki horrekin diseinua egiten da, hots, enpresa zein langileak ezagutu: enpresaren jarduera, organigrama, langileen datuak, bezero eta hornitzaileak eta planarekiko duten jarrera. Datu orokor hauek bildu ondoren, diseinua egiten da eta bertan zehazten dira helburuak, bitartekoak, egutegia eta ebaluazio mekanismoak. Normalean hiru urteko planak izaten dira. *"Oso garrantzitsua da lan hau guztia enpresarekin batera egitea eta adostasuna lortzea hurrengo fasera pasatzea"* dio Dani Larrea Emun kooperatiba elkarteko kideak.

Planaren garapenak osatzen du bigarren fasea, eta hori martxan jar-


tzeko hiru tresna erabiltzen dira bereziki: euskalduntze-alfabetatze taldeak, erabilera taldeak eta euskara batzordea. Euskalduntze taldeen bidez euskara eskolak eskaintzen zaizkie euskaraz ez dakitenei. Erabilera taldeak, berriz, euskaldun hiztunek osatzen dituzte. Lan esparru bereko 8-10 langile biltzen dira euren harremanetako hizkuntza ohitura aldatzeko. Beraien jarduerak identifikatu, aztertu eta garatzen dituzte. Eurak dira beren helburuak ezartzen dituztenak eta horiek lortzeko zer egin behar duten zehazten dutenak. Talde hauek planaren ardatza dira, langileak motibatzea, trebatzea eta inplikatzeko bideratzen dute.

Talde hauek koordinatzen dituen euskara batzordea da. Plangintza-aren jarraipen orokorraz arduratzen da. Erabilera taldeetako ordezkariak eta zuzendaritzaren zein langilearen ordezkariak osatzen dute. *"Garrantzitsua da zuzendaritzako ordezkaria euskararen aldeko jarrera ona*

"Jabetze prozesu bat gertatu behar da.

Aholkulariok ez gaudenean euskararen presentzia eta erabilera maila eutsi egin behar ditu enpresak. Ez du izan behar beti kanpotik bultzatzen dugun zerbait"

Tere Barrenetxea



daukana izatea. Izan ere, euskara batzordean hartzen diren erabakiak zuzendaritzak onartzeko modukoak izatea komeni da" dio Juan Luis Arexolaleiba Emuneko kideak. *"Euskara batzordea enpresaren eguneroko martxan euskarari tarte modu eta eritmo egokienean txertatzeko tresna eta bultzatzaile nagusia da"*.

Ebaluazioak ere garrantzia du, hau da, ematen diren pausoak neurtu egin behar dira; bai planaren diseinua, bai inplikazioa eta bai hizkuntza normalkuntzaren emaitzak. Elhuyarreko euskara plangintzen tenikari den Tere Barrenetxearen ustetan planaren bukaeran enpresak autonomiaz jarraitzeko ahalmena eduki behar du. *"Jabetze prozesu bat gertatu behar da. Hau da, hasieran planteatutako helburuek eutsigarriak izan behar dute enpresaren baitan. Gu ez gaudenean euskararen presentzia eta erabilera maila horrek enpresak berak bere kabuz eusteko modukoa izan behar du, ez du izan behar beti kanpotik bultzatzen jardun behar dugun zerbait"*.

Horregatik, helburuak bi mailatan neurtu behar direla dio Barrenetxeak. *"Batetik, helburua euskararen erabilera eta presentzia altuagoa izatea nahi denez, hori neurtzeko indizeak jarri behar dira hasieran nahiz bukaeran. Eta bestetik, prozesu horren ardura enpresak hartu behar du; hots, enpresak euskararen erabilera kudeatzeko behar dituen jakintza eta tresnak eduki behar ditu"*.

Dena dela, euskararen erabilera areagotzeko hartutako neurriak lantegietan txertatuta geldi daitezen lortu behar da. Hasieran euskarako plana enpresako arlo guztiak ukitzen dituen

zerbait da, baina gero enpresan txertatuta gelditu behar du. Esaterako, kalitateko dokumentazioaz euskara batzordea ardura daiteke hasieran, baina gero kalitate departamentuaren esku gelditu behar du, bere lanean txertaturik.

Orain arteko esperientziak ikusita bai Elhuyarrekoak eta bai Emunekoak pozik daude. *"Lantegi guztietan dago euskararen erabilera gehitzeko aukera ongi planifikatuz gero. Kasu batzuetan gehiago lortzen da eta beste batzuetan gutxiago. Nik uste du emaitzak oso onak izan direla orain arte"* dio Barrenetxeak.

"Gure kasuan MCC kooperatibak hiru urteko plana bukatu du eta hurrengo hiru urterako beste plangintza bat egin du" gehitu du Larreak. *"Hasieratik garbi zeukan jarraitu e-*



gingo zuela. Beste lantegi batzuek ere laster bukatzen dute plana eta dagoeneko batzuek esan digute segitu egingo dutela. Beraz, seinale ona da hori".

Arexolaleibak beste faktore garrantzitsu bat aipatu du: ugalketa. "Gero eta lantegi gehiago dira honetan dabiltzanak eta horrek era badu bere eragina. Ez da gauza bera irlak bezala han-hemenka batzuk topatzea edo inguruko beste batzuk ere horretan dabiltzala jakitea. Konfidantza eta indarra ematen du horrek". Ugalketa horren arazoia gizarteko egoeraren bultzada izan da. Azken urteotan euskararen aldeko jarrera eta bere normalizatorako dinamika areagotu dira; Kontseiluaren "Bai euskarari" kanpaina, 23 giza sektoretan landutako plan estrategikoak... Lan munduko eragileek gizartearen bultzada hori behar dute, eta badu eragina gizarteko beste arloetan egiten denak.

Hemendik aurrera ugalketa joera horrek jarraitu egingo duelakoan daude aditu hauek. Larreak dio enpresetako jendea ez dagoela gaur egungoari begira soilik, etorkizuneko planak eta asmoak bideratzen ari dela. "Aipagarria da, adibidez, Fagor taldeak Euskara Fundazioa sortu

"Gero eta lantegi gehiago dira enpresa euskalduntzeko plangintzetan dabiltzanak. Konfidantza eta indarra ematen du horrek"

Juan Luis Arexolaleiba

duela. Enpresaren irabazietatik ehuneko jakin bat fundazio horretara bideratzen dute. Horrela, bihar edo etzi enpresaren egoera ekonomikoa okertzen bada, fundazioko dirua eduki-ko dute euskararen plangintzarekin jarraitzeko". MCC korporazioak ere orain dela hiru urte 15 milioi pezeta bideratu zituen euskara planetarako, duela bi urte 18 milioi eta aurten 20 milioi.

Askok usteko dute enpresek aurpegia garbitzeagatik egiten dutela hau guztia, marketin hutsagatik. Nahiz eta puntu eztabaidagarria izan, Barrenetxearen ustez hori ez da egia. "Aurpegia garbitze kontua izango balitz, euskararen erabilera kanpo harremanetan areagotzea izango litzateke lehen helburua, eta ez da horrela izaten. Lehen proiektuak beti barrura begirakoak izaten dira; barruko bilerak, dokumentazioa, zirkularrak, langileen arteko harremanak... Barruan gauzak erosotasun minimo batez egin arte ez dira ausartzen bezeroekin euskarazko harremanak izatera, hornitzaileei zerbitzuak euskaraz eskatzera, trebakuntza jarraia euskaraz eskatzera...".

Planak martxan jartzeko baldintzak

Horrelako plan bat martxan jartzeko bi baldintza behar dira, euskararen aldeko ardura izateaz gain:

1-Egoera ekonomiko onean egotea. Egoera ekonomiko txarrean egonda zailagoa da horrelako prozesuan sartzea, beste gauza batzuei emango baitzaie lehentasuna.

2- Kudeaketa aurreratua izatea. Enpresa batek antolaketa klasiko eta egitura zaharkitua badu, ez da sartzeko horrelako prozesu batean. Izan ere, euskararen gaia ez da epe motzera ikusteko moduko etekinak dituen inbertsioa. Epe luzera beste balio batzuk lantzen ari den enpresa izan ohi da horrelako planetan sartzeko dena. Balio horiek bere giza taldea trinkotzea, inguruan bizirik dauden kezkei erantzutea eta abar izan daitezke. Horri deitzen zaio kudeaketa aurreratua izatea.

Planak arrakasta izan dezan bete behar diren baldintzak

1- Langileen konpromisoa:

- Euskara Batzordeak eragile gisa eginkizun garrantzitsua du, guztiaren motor eta bultzatzaile izan behar du.
- Langile euskaldunek prozesuarekiko jarrera gogotsua izatea.
- Euskara ez dakiten langileek euskara borondatez ikastea.

2- Enpresaren konpromisoa:

- Baliabideak jartzea eta plangintza abian jartzeko erabakiak hartzea.

3- Aholkularitza enpresaren konpromisoa (E-mun, Elhuyar, Artez...):

- Planifikazioa eta metodologia egoki aplikatzea.



Lanbide Heziketa eta euskalduntze prozesua

G A I A

G

Elay Taldearen zortzi urteko esperientzia

Antzuolako Elay taldeak orain dela zortzi urte jarri zuen abian enpresa euskalduntzeko plana. Bera izan zen aitzindaria eta gaur egun esperientzia gehien duena da. Zer esan eta zer erakutsia badu, beraz. Anaje Narbaiza Euskara batzordeko kidea, prest agertu da azalpen horiek emateko.

Hasteko, esango al diguzu nola ko enpresa den Elay taldea?

Negozio Unitate ezberdinak dituen enpresa taldea da; Ebaketa Zehatza eta Gain Moldaketa Antzuolan da goen Elay Industrial SAN eta Mexikoko Celay SA de CVn lantzen dira; Estaldura Extragorretan partaidetza duten enpresak aritzen dira, hots, Balzers-Elay SA Antzuolan eta Bartzelonan, eta Balzers SA de CV Mexikon; eta azkenik, talderako aritzen diren

zerbitzu enpresak daude, Elay SA Antzuolan eta Elay-Deutschland GMBH Alemanian.

Euskara Plana Antzuolan dauden bost enpresetan (Balzers-Elay, Seytra, Elay industrial, Trokelay eta Elay SA) ari da garatzen, eta egun 279 langile ari dira lanean.

Euskara Plana garatzeko dauden giza baliabide zuzenak honako hauek dira: hiru Euskara Batzorde, Euskara Batzordeetako hiru koordinatzaile-idazkari, ni neu, Ioseba Otaño eta Aitor Rementeria, eta plana ebaluatzeko Kalitate Segurtasuneko arduradun diren Xabier Telleria eta Ketxus Amasorrain. Denon eginkizuna euskararen erabilera areagotzeko neurriak bidean ipintzea da.

Enpresa euskalduntzeko planarekin hasi zineten lehenengoak zarete, orain dela zortzi urte, hain zu-

zen ere. Zerk bultzata abiatu zineten? Zein arrazoiengatik?

Alde batetik, garbi zegoen inguruko eskoletan denak euskaraz ikasten zihardutela. Bagenekien hezkuntza sistemak eskaintzen zigun pertsonaren osotasuna garatu nahi bagenuen, euskaraz funtzionatu behar genuela. Hori izan zen hasierako pausoa ematen lagundu zigun hausnarketa.

Bestetik, enpresa honek betidanik eduki du euskararekiko sentsibilitatea eta euskararen plana gauza zedin beharrezko hedadura eman zion.

Orain dela zortzi urte %65 euskaldunak ginen. Era berean, inguruak ere asko lagundu zigun. Antzuolan herritar gehienak euskaraz bizi dira.

Gauzak horrela, euskaraz funtzionatzeko plana, enpresaren aldetik eta langileen aldetik, nahi osoz onartu zen.



Euskaraz ikasitako gazteak aipatu dituzu. Enpresa euskalduntzen laguntzen al du gazte horiek edukitzeak?

Bai, baina horrek tranpa buelta bat dauka. Gazteak euskaraz ikasitakoak dira, baina lanean hasten direnean eta beren inguruak gaztelaniaz funtzionatzen duela ikusten dutenean, beraiek ere gaztelaniaz hasten dira inori ezer galdetzeke, eta ez dira gauza euskaraz lan egiteko. Tresna eta agiri guztiak gaztelaniaz baldin badaude, nahiz eta langile berria euskaraz ikasitakoa izan, ezingo du euskaraz lanik egin.

Horregatik, ez da nahikoa gazteak euskaraz ikasita etortzea. Lantegian euskaraz lan egiteko baliabideak jarri behar dira. Hori ezinbestekoa da. Are gehiago, ausartzen naiz esatera, enpresan gauza guztiak euskaraz funtzionatuko balute eta erdaldun bat etorriko balitz, laster asko jarriko litzatekeela lana euskaraz betetzera. Lehenengo egunean galdetu egingo luke, bigarren egunean ere bai, eta hirugarren egunerako autonomia osoz beteko luke bere zeregina.

Zein egoeratan zeundeten orain dela zortzi urte?

Hasi ginenean, beste enpresek bezalaxe gureak ere gaztelaniaz funtzionatzen zuen.

Zein urrats eman zenituzten egoera hori aldatzen hasteko?

1992an Elhuyarrekin harremanetan jarri ginen, eta beraien laguntzarekin ezarri genuen plana, beraiek egin ziguten hasierako diseinua. Nahiz eta orain guk geuk jarraitu planarekin, oraindik ere behar dugun laguntza teknikoa beraiengandik jasotzen jarraitzen dugu.

Plana hasi aurretik eta bideragarritasun txostenaren datuak eskuan edukita, Enpresako Zuzendaritza Kontseiluak babesa eman zion planari baldin eta langileak onartzen bazuten. Izan ere, enpresak babesa eman ezean ezinezkoa zen horrelako plan batek zekarren gastuei eta buruhausteiei aurre egitea. Gauza bera gerta-

tzen da langileek nahi ez badute ere. Beraz, langile guztiei, 10-12ko talde txikitan banatuta, planak zer eskaintzen zuen azaldu zitzaie, beraiek zer lortuko zuten, zein esfortzu egin beharko zuten eta zenbat denborarako izango zen.

Azken helburua euskaraz funtzionatzea izango zela jakinda, Batzar Orokorrak bat burutu zen 1992ko otsailaren 2an, eta %99k baiezkota eman zion planari. Garai hartan 150 langile ginen.

Beraz, euskaraz funtzionatzeko lehenengo urrats sendoa emanda zegoen.

Zein erabaki edo neurri hartu izan dituzue?

Bi etapa bereiztuko nituzke: lehenengo lau urteak eta azken lau urteak.

Hasierako lau urteetan batez ere bi neurri hartu genituen. Bata erdaldunentzako klaseak jartzea. 50 lagunetik gorak hartu zuten parte, batzuek zekitena osatzeko, beste batzuek alfabetatzeko eta beste batzuek ikasteko. Ikaste prozesuan langileen %35ak parte hartu bazuen, momentu honetan horietatik %25ek bukatu du.

Beste neurria komunikazio zirkuluak ezartzea izan zen. Hau da, euskaldun zaharrek euren lana euskaraz betetzeko zein oztopo zituzten aztertu zuten eta zein irtenbide izan zezakeen proposatu. Adibidez, agiri bat euskaratzeko prozesuan erdaldun bat baldin bazegoen, zer neurri har zitezkeen aztertzen zen agiri hori euskaratua izan zedin langile erdaldunaren hizkuntza eskubideak urratu gabe.

Komunikazio zirkuluen bidez egingako azterketa hauetatik euskara areagotzeko proposamenak eta neurriak ateratzen ziren. Ondoren, zuzendaritzak onartzen bazituen, martxan jartzen ziren. Esaterako, maki-



nen errotuluak, eskuz betetzeko zenbait agiri...

Komunikazio zirkuluak lau urte iraun zuten. Bosgarren urtetik aurrera laga egin genuen eta Euskara Batzordea sortu genuen. Orditik aurrera batzorde honek aztertzen du edozein premia edo zalantza. Hori da momentu honetan daukagun tresna. Bertan enpresako departamentu guztietako buruak eta zuzendaritzakoak daude.

Horrez gain, seigarren urtetik aurrera euskararen prozedurak martxan jarri ziren eta dagoeneko bi auditoria egin ditugu urtean zehar hartutako neurriak betetzen diren ala ez ikusteko.

Auditoriak egiteaz aparte, zer jarraipen eskatzen du lan honek?

Sekula amaitzen ez den lana da. Nahiz eta errotuluak aldatu, egunero egunero gauza berriak sortzen dira eta euskararen erabilpena ziurtatu egin behar da beti. Oraindik normalizatu gabe dago euskara, eta horrek jarraipena eskatzen du, gainean egotea.

Erdaldunen hizkuntza eskubideak zapaldu gabe areagotzen ari zarete euskararen erabilera. Zein da hori bermatzeko hartu duzuen jarrera edo jokaera?

Hasiera-hasieratik Zuzendari Orokorra den Santiago Zabaletak bermatu zuen erdaldunen hizkuntza eskubideak ez zirela urratuko eta bera izango zela horren bermatzailea. Beraz, helburua ez da errotulazioa, agiriak eta abar euskaraz jartzea soilik, baizik eta denok elkar ulertuko dugula bermatzea. Euskara ez dugu erabili behar berari gertatu zaiona gaztelaniari gerta dakion, hots, zapaltzeko. Ea gauza garen gaztelania zapaldu gabe euskarari dagokion lekua eta maila emateko, hori izango da euskara planaren lorpenik handiena. Egun 279 langile gara eta horietatik 13k ez dakit euskaraz. Inork ez du zalantzan jartzen Elay Taldean dauden artean beraien hizkuntza eskubideak errespetatu egingo zaizkiela.

Barne eta kanpo komunikazioa bereiztu al dituzue planean?

Bai, bereiztu ditugu. Barne komunikazioari dagokionez, geure esku dago eta guk nahi dugun neurrian lana euskaraz beteko dugu.

Kanpora begira hornitzaileak eta bezeroak daude. Balzers Elayn Euskal Herriko bezeroei informazioa elebiduna bidaltzen zaie. Taldeko gainerako enpresetan, bezeroak atzerrikoak dira eta horiekin ez daukagu arazorik, ez da ezer aldatu-eta. Hornitzaileak, aldiz, Euskal Herrikoak dira, eta hauekin dugun harremana ez dago batere normalizatua. Ahozko harremana euskarazkoa dugun hornitzaileekin euskaraz funtzionatzen dugu, baina besteekin ez. Askotan beldurra atzematen dugu euskaraz egiteko, ez baitakigu zein den euren errealitatea eta sentsibilitatea. Beste enpresa horietan euskaratzeko planak ezartzen ez diren bitartean ezin da bermatu euskaraz normaltasunez funtzionatuko dugunik. Hori ere gainditu egin behar dugu, noski. Eta horretarako denbora behar dago.

Nola aztertzen edo ebaluatzen duzue plana?

Aztertze erabiltzen dugun metodoa beste edozein produktu kontrolatzeko erabiltzen dugun berdina da, hau da, prozeduren bitartez. Esaterako, kalitateko prozedurek daukaten ekinbide eta jarraipen bera dauka euskararen prozedurak ere. Kalitateko Prozeduretan aurreikusita dago produktua nola aterar behar dugun, eta produktua ateratzeko barneko betebeharrak guztiak euskaraz burutu behar ditugula. Beraz, ez da produktuaren kalitatea soilik ziurtatzen, baita produktua ateratzeko ezarritako dagoen euskara politika erabiliko dela pauso guztietan.

Zenbateko kostua du horrelako plan batek?

Hori enpresaren arabera izango da. Guk hasierako 4 urteetan 10-15 milioi pezeta inguru gastatu genituen urtean, eta gaur egun 5 milioi inguru gastatzen ditugu. Pauso bat aurrera jo behar den bakoitzean gastu ekonomiko bat egin behar izaten da. Gastu horiek premien arabera izaten dira. Horregatik, agian datorren urtean gehiago gastatu behar dugu, edo gutxiago. Gorabeherak egon daitezke, baina garbi eduki behar da planaren ezarpenak gastuak sortuko dituela. Baita esan, hasiera-hasieratik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak jaso izan ditugula euskararen plana garatzen joateko. Dirulaguntza horiek gastuaren %20 ingurukoak izan dira.

Merezi al du horrelako plana mar txan jartzea?

Bai, noski. Orain dela zortzi urte gaztelaniaz soilik aritzen ginen, eta

urte hauetan zalaparta handi barik eta gauzak nahiko normal joanda, pauso garrantzitsuak eman dira. Hori guztia jendeak eduki duen borondateari esker, ikasteko egin duten esfortzuari esker eta komunikazio zirkuluetan egindako lanari esker izan da. Beraz, nahi orokor horri esker lortu da. Enpresan bizi garen komunitate txikiak nahi izan duelako iritsi gara gauden lekuraino.

Merezi izan du, eta oraindik hasiera besterik ez da izan. Denbora behar dago inork atzetik kontrolatu gabe euskaraz funtzionatzeko, baina etorriko da.

Aipatzekoa da, gainera, planak dakarren hizkuntza azterketa ez dela hizkuntza aztertze soilik, enpresa osoa aztertzen laguntzen duen tresna baizik. Azken batean, hizkuntzaren bitartez harremanak, zirkuituak eta barruko ohitura guztiak aztertzen dira. Hankaz gora jartzen da ezarritako dagoen sistema osoa, dena aztertu behar da zerotik hasita eta enpresa guztiak parte hartuko duela bermatzen da. Oso gai interesgarria da eta langileen parte-hartzea areagotzeko bide aproposa. Are gehiago, gizartean integrazioa bideratzeko egokia iruditzen zait, oso.



Atal honetan agertzen diren argazkiak Antzuolako Elay Industrial enpresan ateratakoak dira. Arlo guztietan euskararen presentzia nabarmena da.

E L K A R R I Z K E T A


julio
abascal

**EHUko Informatika
Fakultateko irakaslea**



E

Askotan Interneten sartu
eta prozesuak berak eramaten
gaitu. Justu alderantzizkoa
egiten ikasi behar dugu.



Kritiko
izateko bide
erraz bat
dago:
Interneten
lortzen den
informazio
guztia ez
sinestea hor
dagoelako
soilik

Informatikan aditua den gizon hau EHUko Informatika Fakultateko irakaslea da. Fisikan lizentziatu ondoren, irakaskuntzan hasi zen lanean. Informatikan doktoradutza lortu eta 19 urte daramatza Informatika Fakultatean eskolak ematen.

Badaki Teknologia Berrien inguruan beharrik eta ezintasunik daudela irakaskuntzan, eta irakasleei lan hori samurtzen eta laguntzen saiatzen da. Hik Hasi Uda-ko Topaketetan Interneten erabilera kritikoak hezkuntzan duen garrantziaz hitz egin zuen. Gai horren inguruan dauden kezkek, jokaerak eta ikuspegiak izan ditugu hizpide.

Interneten erabilerak kritikoa izan behar duela azpimarratzen duzu. Zer da Internet modu kritikoz erabiltzea?

Prozesu osoa kontrolatuz erabiltzea da. Askotan Interneten sartu eta prozesuak berak eramaten gaitu, eta ondorioz ez dugu geuk nahi duguna egiten, Internetek nahi duena baizik. Bada, justu alderantzizkoa egiten ikasi behar dugu. Internet erabili aurretik helburuak finkatu behar ditugu, zer aurkitu nahi dugun jakin behar dugu. Ondoren, nahi dugun hori lortzeko zer egin behar dugun zehaztu behar dugu, zer pauso eman. Urrats horiek eman eta bukatu ondoren, nahi genuena lortu dugun ala ez ebaluatu behar dugu.

Prozesu horretan gauza erakargarriak topatuko ditugu. Erakartzeko diseinatuta daude eta normalean horerortzen gara gure helburuetatik urrunduz.

Zenbait kasutan helbururik gabe erabiltzen dugu Internet, besterik gabe nabigatzeko. Dendetako erakusleihak ikustera joatea bezala da. Kasu horretan, lortzen dugun informazioa onuragarria izan daiteke. Baina irakaskuntzan hori ez da helburua. Horregatik, Interneten sartu aurretik helburuak, erabilpena eta ebaluazioa zehaztu behar dira.

Nola lor dezakegu hori? Nola izan gaitzeko kritiko?

Kritiko izateko bide erraz bat dago: Interneten lortzen den informazio guztia ez sinestea hor dagoelako soilik.

Gaur egun hori lortzea ez da erraza. Bizimodu normalean ez kritiko gara, adibidez, telebistek eta egunkariek ematen dituzten berriekin. Baina Interneten dagoen informazioak baditu bere helburuak, ezagunak edo ezezagunak. Horregatik, informazio guztia ez dugu sinestu behar Interneten dagoelako soilik, eta aurkitzen duguna beste iturri batzuekin kontrastatu behar dugu. Garrantzitsua da lortutako informazioa lantzea kritikoki barnera dezagun.

Zerk lagun diezaioke irakasle bati ikuspegi kritiko hori erabiltzen edo lortzen?

Metodologia bat erabiltzeak lagun diezaioke horretan. Telebista edota beste media eta materialak hezkuntzan erabiltzeko metodologiak dauden bezalaxe, Internetekin ere gauza bera egin daiteke.

Zein da Interneterako egokia den metodologia? Zer proposatzen duzue?

Nik uste dut irakasleak beraiek direla horretaz gehien dakitenak. Gainera, ikasgaietan erabiltzen dituzte eta ondo ezagutzen dituzte estrategia horiek. Dakiten hori aprobetxatu eta Interneten aplikatu dezakete. Hik Hasi Udako Topaketetan saio praktikoa egin genuen eta ekarpen asko egin zituzten horretaz beraien esperientzietan oinarriturik.

Halere, egia da Interneten erabileraren inguruko erreferentziarik ez dugula izaten askotan. Ezintasun horren aurrean elkarren artean bildu, materiala prestatu eta elkarri laguntzea da egokiena.

Metodologia irakasleek beraiek lantzeak bi abantaila ditu. Batetik, gaia menperatzen ikasiko dute eta horrek lasaitasuna emango die. Bestetik, euren materiala osatuko dute pixkanaka eta besteen eskura jartzeak bultzada handia ekarriko du. Horregatik, nire helburua irakasleak beraiek animatzea da.

Dena dela, ikastaroan metodologia baten oinarriak proposatu nituen. Formulario batzuk erabiltzea, hain zuzen ere. Bertan zenbait galdera daude eta horiek erantzunez helburuak finkatzen dira, metodologia eztabaidatzen da, eta ebaluatzeko modua zehazten da. Horrela diziplina bat hartzen da. Proposamen hau ez da berria, horrelako formularioak beste arlo batzuetan erabiltzen baitira, eta Interneterako ere baliagarriak dira; adibidez, Internet erabili aurretik zertarako nahi dugun zehazteko.

Metodologia edukitzeaz gain, ordenagailuak eta tresneria erabiltzen ere jakin behar da. Zenbaterainoko ezagutza behar da? Zenbat jakin behar da?

Tresneria ondo erabiltzen jakitea garrantzitsua da, bestela ez baitugu lortuko nahi duguna. Alde horretatik, bihurtzeko egoera onean edukitzea eta prestakuntza jasotzea garrantzitsua da. Hori da errebindikatu behar duguna.

Laguntza teknikoak edukitzea beharrezkoa da, zeregin hori ez baita irakasleena. Ordenagailuak jarri eta guk mantendu behar ditugula esaten badigute, horri ezetza eman behar diogu. Mantenu oso astuna da eta irakasleek denbora asko galtzen dute horretarako prestatu gabe daudelako. Lan hori teknikariek egin behar dute.


Bestalde, tresneria erabiltzeko prestakuntza edo ikastaroak ere eskatu behar dira. Orain arte irakasleek beren kabuz ikasi dute, beraien denbora erabiliz. Beste lanbideetan ez da hori gertatzen, lanorduetan ikastaroak egiten baitira. Hezkuntzan, aldiz, irakasleek gauza asko irensten dituzte, eta azkenean jendea erre egiten da. Irakasleen artean esperientzia, ilusioa eta lantzeko gogoia dutenak ezagutzen ditut, metodologia aldetik asko dakite eta profesionalki oso aurreratuak daude. Aberastasun handia dago eta hori galdu egingo da laguntzarik ematen ez bazaie.

Askotan ikasleek irakasleek baino gehiago dakiten sentsazioa dago, ordenagailuak erraztasun gehiagorekin erabiltzen dituztelako.

Bai, egia da tresneria hobeto erabiltzen dutela, askeago ibiltzen direla eta ez dutela inolako beldurrik edozein teklakatzeko. Horren aurrean beldurra kendu behar dugu, lasai esan behar dugu ez dakigula, ez dela gure lana hori jakitea eta ez dela ezer gertatzen ez jakiteagatik.

Gainera, ikasleek tresneria erabiltzen badakite, baina gehienetan nabigatzeko edo jolasteko erabiltzen dute ordenagailua. Irakasleen zeregina helburu zehatzetarako erabiltzen irakastea da, metodologia garatzea erabilpen kritikoa egin dezaten. Horretan datza irakasleen ekarpena.

Zertarako erabili daiteke Internet gelan eta zertarako ez da erabili behar?



Hori zehaztea oso zaila da. Ni ez naiz hezkuntzan aditua, baina gehiegikeriak ikusten ditut eta horiek aipatzen saiatzen naiz. Nik ideiak eta metodologiak proposa ditzaket, baina gero pedagogoen eta irakasleen esan beharko dute konkretuki nola, zertarako, non eta noiz erabili.

Askotan irakasleek jarrera eroso hartzen dute eta metodologia nahiz gida liburua eskuetan jasotzea nahi izaten dute, besterik gabe. Laguntza jaso behar dute eta horretan ados nago, baina nik uste dut hobe dela beraiek zehaztea nola eta zertarako erabili. Nagiak kartzeko nahikoa litzateke gai bat edo bi prestatzea Internetekin lantzeko, eta ez ikasgai osoa.

Nolanahi ere, irakasleen arteko koordinazioa ez da ahaztu behar. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan irakasleen arteko koordinazioa beharrezkoa da.

Zer arrisku ikusten dizkiozu Internet erabiltzeari?

Arrisku bat denbora galtzea da. Askotan informazio jakin bat aurkitzeko sartzen gara Interneten, eta lau ordu pasa ondoren informazio hori ez beste mila lortzen ditugu. Agian interesgarriak izango dira, baina ez hasierako helbururako behar genituenak.

Ordena-
gailuek
irakasleak
ordezkatuko
dituztela uste
duenak ez du
ulertzen
irakaslearen
benetako
zeregina zein
den

Beste arrisku bat dispertsioa da. Internet ez da egokia oroimena eta arreta lantzeko, dispertsioa ekartzen baitu. Eskuzko trebeziak ere gal omen daitezke eta buru egiturak arindu. Adibidez, ikasle batzuei kosta egiten zaie abstraktioetik konkretziora pasatzea; eskemak interpretatzeko zailtasun handiak dituzte, esaterako. Ez dituzte prozesuak esperimintatzen, simulazioak ikusi baizik.

Arrisku horiek ezagutu arren, gero eta gehiago erabiltzen da Internet. Ziberlagunak, ziberguneak eta abar sortzen ari dira. Zer eragin izango du horrek giza harremanetan?

Egia da hori gero eta gehiago zabal-tzen ari dela. Asko dira "txateatzen" ibiltzen direnak. Sarritan sarean sortzen diren erlazioak faltsuak izaten dira, errealitatek urrutzen den beste pertsonalitate bat sortzen baitute. Errealitateko bizitza astuna egiten zaie eta ondo sentitzen diren lekua sarea da.

Horrek, noski, baditu ondorioak giza harremanetan eta horien inguruan hausnartu eta eztabaidatu egin behar dela uste dut. Orain arte gauza onak baino ez dira esan, baina arrisku horiek ere ezagutu behar ditugu. Internetek banandu egiten gaitu eta erlazio sozialak murriztu egiten dira. Interneten a-


riskuen aurrean babesteko indarrak ez daukagu, bizilagunekin, lagunekin eta koadrilarekin ez daukagu traturik, eta lagunak Australian, EEBBetan edota Asian badaude ezin digute lagundu. Arlo honetan soziologoek zeresan handia izango dute.

Horren aurrean zer gertatuko dela uste duzu?

Erreakzio bat egongo dela uste dut. Esaterako, etxean lana egiten hasten bagara, langileen eskubideak erraz urratuko dira. Jendeak horri aurre egiteko modua aurkituko diola iruditzen zait. Ez dakit teleziber-sindikatu edo zer sortuko den, baina zerbait bai.


Hezkuntzan ordenagailuak irakasleak ordezkatzera iritsiko al dira?

Ez dut uste. Hori pentsatzen duenak ez du ulertzen irakaslearen benetako papera edo zeregina. Irakasleak etorkizunean ez direla adituak izango diote batzuek, teknikoak izango direla. Horien arabera, irakasleek lana nola ikasi behar den eta zein baliabide erabili behar diren erakustea izango da, eta jakintza sarean egongo da, ez dute berea izango. Horrela, irakasleak rol instrumentala hartuko du. Nik uste dut hori ez dela egia eta ez dela horrelakorik gertatuko.



Zeren, orduan, zer izango da ikas-
tea? Beste pentsamolde batera gama-
tza horrek: guk ez dugu jakintzarik be-
har, ordenagailuan dago eta behar du-
gunean horra jotzea nahikoa dugu. Ja-
kin behar al dugu Luis XVI. noiz bizi i-
zan zen edo Errumaniaren hiruburua
zein den? Zertarako? Gero eta erraza-
goa izango da datu horiek eskuratzea.

Orduan,
norai-
no



iri-
tsi be-
har du guk
dakigunak, barruan daukagunak? Gu-
re ikasleak informazio bilatzaile oso o-
nak izango dira, baina zer egingo dute
informazio horrekin? Horrelako jendea
oso baliagarria da lana egiteko, arazo-
rik ez sortzeko eta kontrolatuta eduki-
tzeko. Historia ezagutzen ez dutenez,
edo ideiak barneratu gabe dituztenez,
erraz kontrola eta engaina daitezke.

**Zenbaterainoko kaltea ekar leza-
ke horrek? Horretaz kontziente al ga-
ra?**

Zaila da kalteak zenbaterainokoak
izango diren aurreikustea Interneti bu-
ruzko erreferentziarik ez daukagulako.
Baina beste zerbaitekin konparatuz ge-
ro, errazago uler daiteke.

Horregatik, orain hasi behar dugu
zerbait egiten, gero beranduegi izango
baita. Kaltea egina dagoenean askoz e-
re zailagoa da konpontzea. Gauza onez
gain, ezkutuan uzten diren arriskuak e-
re aipatu behar dira. Guztiz kontran ja-
rrita ez genuke ezer lortuko eta politi-
koki ez dela egokia uste dut. Baina po-
sible denean ikuspegi kritikoa azaltzea
ona dela uste dut.

**Hezkuntzan nola aurre hartu die-
zaiokegu kalte horri?**

Kritikoa izanez, eta hori eskoletani-

rakats daiteke. Dagoen informazio
guztia aprobeatza daiteke, baina aldi be-
rean distantzia mantenduz eta ideiak
landuz. Ikasle eta irakasleok erabilpen
kritikoa egitera iristen bagara, aurrera-
pauso handia izango da.

Agian hezkuntzan baino ez da e-
gongojende kritikori edo betikoaki-
zango dira. Dena den, beharrezkoa da
horrelako jendea egotea, ekologistak
egotea beharrezkoa den bezalaxe in-
gurumen-inpaktuaren ondorioak zein
diren jakin dezagun. Gutxiengoa dira,
baina beraien mezua ongi sartuta dago
gizartean. Interneten arrisku eta kaltee-
kin gauza bera egin dezakegu hezkun-
tzatik. Erabilpen kritikoa bultzatuz giro
bat sortzea lor dezakegu, eta denbora-
rekin jendeak nabarituko du gure lana.

**Zergatik da hain garrantzitsua
jende kritikori hezkuntzatik sor-
tzea?**

Nire ustez, hezkuntzaren helburu
garrantzitsu bat
arlo
guz-



tietan
kritiko i-
zatea da pertsona helduak lortzeko.
Gazteek eskolan ikasten badute Inter-
net kritikoki erabiltzen, inmundatua-
goak egongo dira erabilepn komertzia-
laren eta politikoaren aurrean.

Baina bere kabuz hasten badira, le-
ku erakargarrietara eta errazenetara
baino ez dute joko, oraindik iritzirik ez
daukatelarik beren burua babesteko.

Gainera, kantitate aldetik izugarri-
ko informazioa dago eta horrek desin-
formazioa sortzen du. "Data smog" dei-
tzen zaio horri, datu kutsadura. Hain-
beste informazioaren aurrean zaila da e-
giatzkoa eta gezurrezkoa bereiztea.

Kalitateari dagokionez ere beste
hainbeste esan daiteke. Gaur egun e-



Interne-
ten sartu
aurretik
helburuak,
erabilpena
eta
ebaluazioa
zehaztu
behar
ditugu

dozeinek jar dezake webgune bat eta
horrek fidagarritasun arazoak dakar-
tza. Ikasleei gai bati buruzko lan bat egi-
teko esaten zaienean, webgune ba-
tzueterako jotzen dute informazio bila.
Orri horiek onak edo txarrak diren jaki-
teko kolorea eta erakargarritasuna har-
tzen dituzte kontuan, ez daukate egiaz-
kotasuna neurtzeko gaitasunik.

Horixe da irakasleek irakatsi behar
dietena lehen aipatu dugun metodolo-
gia erabiliz; nahi duten informazioa
aurkitzen, eta horren iturria kritikoki
aztertzen bere fidagarritasuna neurtze-
ko. Hori da irakasleek eta hezkuntzak
lortu behar duten ekarpen nagusia.

Zinea Filosofia jakintzagaiari

Seve Sanchez

Elorrieta-Erreka Mari institutuko irakaslea



Filosofia jakintzagaiari zinea erabilgarria dela erakutsi nahi dut artikulu honen bidez. Nire esperientziaren berri emanez, neuk ateratako etekina beste lankideren bati lagungarri gerta dakioke.

Nire asmoaren helburua

Aurrera jo baino lehen, zerk bultzatu ninduen zinea erabiltzera azaldu behar dut. Denoi egokitu zaigu behin baino gehiagotan ordutegi zaila. Niri egokitu zitzaidana ez zen bate-re mesedegarria eman beharreko curriculumarekin betetzeko -ikusitako OCDan Filosofia jakintzagaia edo testuliburuaren aurkibidea-. Asteko lau orduetatik bi jarraian zeuden, eguneko azkenak i-

zanik, gainera. Hortaz, probetxurik gehien atera nahirik, hilean behin gutxienez film bat ipintzea bururatu zitzaidan, zinea ikusteak ahalegin berezirik ez baitzuen eskatzen.

Bestalde, ezin dugu ahaztu Batxilergoko 1. mailako ikasleek lehenengo aldiz egiten dutela topo filosofiarekin. Zineak, dudarik gabe, atseginago egin ziezaiekeen jakintzagai berria.

Aipatutako egoerak baldintzatuta egoteaz gain, OCDaren helburu orokor batzuk zinearen bidez eraginkortasunez bete ahal zirela uste nuen, hala nola:

1-. Pentsatzeko estilo berezia garatzea eta argi eta modu koherentean bai ahoz eta bai idatziz ere jakinarazteko gaitasuna izatea.

2-. Gure gizarteko jakintza, jokabide eta balio desberdinak hautematea, gogoeta kritikaren bidez bakoitzaren funtsen egokitasun arrazionala ziurtatuz.

3-. Arrazoiaren erabilera autonomoa balioestea, banakako zein gizarteko giza ekintzak interpretatzeko adimenezko ahalegin gisa, elkarrizketa arrazionala eta ideien askatasuneko adierazpena bultzatuz, eztabaidatu eta ikasleen arteko desberdintasunak ezabatzeko oinarritzko prozedura gisa.

4-. Gizartean arraza, sexua eta sinismenak direla-eta egiten diren desberdintasun eta bereizkeriak justifikatzeko edozein saiakeraren aurrean jarriera kritikoa izatea.

Helburuez gain, gogoan izan behar ditugu curriculumarekin osatzen duten kontzeptuzko edukien lau nukleo handiak: GIZAKIA, EZAGUTZA, EGINTZA eta GIZARTEA.

Erabilitako metodologia eta jarduerak

Filma ikusten hasi aurretik -filmaren iraupenaren arabera aurreko egunetan izan zitekeen- filmari buruzko fitxa ematen nien ikasleei.

Orri honek honako atal hauek zituen:

- a) filmaren fitxa teknikoa
- b) filmari buruzko datu garrantzitsu batzuk (argumentua, elementu tekniko nabarmenak, kokapen historikoa eta geografikoa, lengoia zinematografikoaren aurkikuntzak,...)
- c) gai filosofikoarekiko lotura (hausnartzeko galderak, eztabaidatzeko iradokizunak, pentsatzeko ideiak,...).

Jakina, gaiak eskatuz gero, atal batzuk gaineratu edo kendu egiten ziren.

Adibidez, hau da "Shakespeare in Love" filmaren fitxa:

Fitxa teknikoa

Zuzendaria: John Madden

Gidoilariak: Marc Noran eta Tom Stoppard

Antzezleak: Gwyneth Paltrow (Viola), Joseph Fiennes (Will Shakespeare)

Urtea: 1998

Shakespeare in Love antzerkiari eginiako omenaldi ederra dugu. 1999. urteko "Oscar" sarietako gehienak jaso zituen, hala nola, filmik onenari eta emakumezko aktorerik onenari emandakoak.

Garaia eta pertsonaia historikoak

Filmaren gertaerak asmatuta

daude. Shakespearek idatzitako soneto batetik ateratako kontakizuna da. Filmean Shakespeare Viola izeneko neska eder eta aberats batekin maitemintzen da eta ezinezko maitasun grinatsu horretatik abiatuta "Romeo eta Julieta" antzezlana egingo du. Honela, filmean Shakespeareren amodioa eta idazten ari den obrarena elkaturik agertzen zaizkigu.

Filma 1593. urteko Londonen (Ingalaterran) kokatuta dago, eta besteak beste, hurrengo pertsonaiak benetakoak dira:

William Shakespeare: poeta eta antzerkigile ingelesa (1564-1616). Ingeleseko literaturako idazlerik gorenetakoa. Haren obra dramatikoa izan zen eta poemak eta soneto-bildumak idatzi zituen. Lanik garrantzitsuenak: Romeo eta Julieta, Uda-gau bateko Ametsa, Hamlet, Otello, Macbeth, Lear Erregea, Ekaitza....

Christopher Marlowe: poeta eta antzerkigile ingelesa (Canterbury, 1564 - Deptford, Londres, 1593). Fausto Doktoarearen Historia Tragikoa idatzi zuen (1588).

Elizabeth I.a: Ingalaterra eta Irlandako erregina (1558-1603). Enrike VIII.aren eta Ana Boleynen alaba. Ingalaterran anglikanismoa estatu-erlijio bilakatu zuen. Haren garaian Espainiako Armada Garaitezi-na ezereztatua izan zen eta Ingalaterraren itsas nagusitasuna frogatuta geratu zen. Garai hartan Ingalaterrako kultura eta artea ere goren mailara iritsi ziren.

Eztabaidarako gaiak

- Arrazoia eta Pasioa

Jende askoren ustez, pasiorik gabe ezinezkoa litzateke "handia" den ezer egitea. Shakespearek idazteko maitasunaren grina edo pasioa behar du. Nola eta noiz agertzen da ideia hau filmean?

Shakespearek eta Violak pasioa bizi nahi dute, baina ezin dute. Azkenean Viola Ameriketara joango



da bere senarrarekin. Gizarteak ala arrazoiak beren grinak menderatzeko eskatzen al die?

Erromantikoek arrazoiaren gainetik dagoen balio gorentzat jotzen dute pasioa. Zer iruditzen zaizu filmaren amaiera?

- Emakumearen menpekotasun historikoa

Violak, emakumea bada ere, gizonezkoentzat gordeta zegoen lana egin nahi du. Viola emakume askea al da?

Film hau 1. nukleoaren (Gizakia) 2. kapitulua lantzeko erabili nuen, hau da, "Arrazoia eta grina" gaia.

Batzuetan filma gaiaren aurkezpena egiteko erabiltzen nuen; bestetan gaia ikusi eta gero ikasitakoa sakontzeko eta finkatzeko.

Lehenengo orduan filma ikusi ondoren, hurrengo orduan klasean eztabaida sortzen ahalegintzen nintzen. Noizean behin idatzizko komentario txiki bat ere eskatzen nien.

Jarraian dauden hauek dira ikasturtean zehar ikusitako filmak eta landutako gaiak:

2001: ESPAZIOKO ODISEA: Gizakia; gizakiaren eboluzioa



SHAKESPEARE IN LOVE: Gizakia; arrazoia eta grina

THE QUIET MAN (GIZON LA-SAIA): Gizakia; historia eta kultura a-niztasuna

THE MATRIX: Ezagutza; ezaguer-a eta errealitatea

APOKALYPSE NOW: Ekintza; ba-lilio moralak

CLERKS: Ekintza; giza ekintza eta askatasuna; sormen artistikoa

A CIVIL ACTION: Gizarte; zu-zenbidea eta justizia

TRUE CRIME: Gizarte; gizarte u-topiak

Ebaluazioa eta ondorioak

Ikasturtearen 3. ebalualdiaren erdialdean proiektu honen ebaluazio egin genuen. Horretarako ondoko galdegegria banatu nuen klasean:

IZEN-DEITURAK:

FILOSOFIA JAKINTZAGAIAN IKUSITAKO FILMAK

Irakurri ohar hauek, mesedez, inkesta bete baino lehen!

Ikastetxe honetan lehenengo aldiz izan dugu aurten Filosofia euskaraz; hortaz, lehenengo aldiz irakatsi behar izan dut neuk ere. Atseginago eta ulergarriago egiteko asmoz, zinea erabiltzea bururatu zitzaidan. Orain, ikasturtea amaitzear dagoenean, hurrengo urteko programazioari begira zuen iritzia jakitea gustatuko litzaidake. Izan zaitezte zintzoak erantzutean. Mila esker!

1.- Galdera honetan ikusitako filmei kalifikazioa eman behar diezue, zuen gustuen, interesen eta jasotako inpresioen arabera. Ez ezazue zenbaki hamartarrik jarri, ezta zerorik ere.

2.- Filosofia programazioan gai asko ikusi ahal izan ditugu. Lauki honetan jar itzazue, zuen ustetan, filmarekin zerikusia duten gaiak.

3.- Irekia den erantzun honetan zuen iritzia edo iruzkina eskatzen dizuet, hau da, zer gustatu zaizuen, zergatik, zertan pentsarazi dizuen...

Erantzunak ikusi ahal izateko, lehen ipinitako adibidearekin jarraituko dugu:

FILMA: SHAKESPEARE IN LOVE

1.- KALIFIKAZIOA: 7,8 (gelako batez bestekoa)

2.- FILOSOFIAREN GAIAK:

1. Grina edo pasioa
2. Maitasuna/amodioa / amodioaren garrantzia / amodioaren zailtasuna urte haietan
3. Morala / morala eta amodioa
4. Gizakia / gizon eta emakumeen arteko harremanak /
5. Emakumearen papera Shakespearearen garaian
6. Askatasuna
7. Sexua

3.- IRITZIA EDO IRUZKINA:

1. Ona da / polita / interesgarria / modakoa / entretenigarria / dibertigarria / gustukoa
2. Pentsarazi egiten du
3. Antzezleek oso ondo egiten dute lana
4. Istorio polita / Bikote baten istorio polita / Gizon pobre baten eta emakume dirudun baten arteko erlazioaren suntsipena
5. Amodioa ikuspuntu historiko batetik azaltzen da / Benetako amodioa nolakoa den erakusten digu / Filma ikusirik Romeo eta Julieta irakurtzeko irrika sortu zitzaidan

6. Oso ondo erakusten du grinak bizitzan duen eragina / Oso ondo ikusten da nola dagoen pasioa guztia- ren gaintik / Errealitatea okerragoa bada ere, ezintasunaren aurrean grina irabazte atera daitekeela erakusten digu filmak / Ez da ahazten benetan nahi duguna eta lortu arte jarraitzen dugu.

Agian galdetegiaren erantzunik garrantzitsuenak galdera irekiari emandakoak izan ziren:

- Balio al du zineak filosofia ikasteko? Esan zergatik eta eman adibideak:

Ikasleen kopurua: 16

Erantzunak:

BAI: 14

Bai, film egokiak eta interesgarriak badira: 1

EZ: 1

ZERGATIK balio ditu?

Laburtuz, baiezko erantzunak hurrengo zazpi multzotan sailka daitezke:

1.- Zineak filosofia beste modu batera -dibertigarriagoa, ezberdina,...- ikasteko balio duelako.

2.- Gaia hobeto eta errazago ulertzen laguntzen duelako.

3.- Filosofia pentsamenduan oinarritzen da eta filmek gaien pentsatzen laguntzen dutelako.

4.- Filosofian bezala filmetan ere gai guztiak aurki ditzakegulako.

5.- Zineak bizitza errealaren gora-

Hiru galderak amaitu eta gero, itzuli berriro alde honetara eta erantzun galdera honi:

Balio al du zineak filosofia ikasteko? Esan zergatik eta eman adibideak.

FILMA	1.- KALIFIKAZIOA	2.- FILOSOFIAKO GAIAK	3.- IRITZIA EDO IRUZKINA
2001: ESPAZIOKO ODISEA			
SHAKESPEARE IN LOVE			
THE QUIET MAN (GIZON LASAIA)			
THE MATRIX			
APOKALYPSE NOW			
CLERKS			
A CIVIL ACTION			

beherak azal ditzakeelako.

6.- Bide zuzena jarraitzen ikasteko filmak onak direlako.

7.- Klasea galtzen dugulako (?)

Eta ezezko erantzunaren zergatia:

1.- Filmak gai zehatz bat ukitzen du, baina filosofia oso konplexua da.

Ebaluazioaren azterketa eta esperientziari buruz hausnarke-ta egin eta gero ondoko ondorioak atera ahal direla uste dut:

1.- Zinea erabiltzea **positiboa** izan da oso. Filma jartzen nuen eguneko bi ordu horiei etekin handiagoa atera ahal izan diet bestetan baino.

2.- **Ikasleak ez zeuden eztabaidatzen ohituta.** Gaiari buruz eztabaidatzea kostatzen zitzaien; idatzizko probetan, berriz, ideiak sakonago eta berezkoago agertzen zituzten. Jarrera honen arrazoiak anitzak izan daitezke: gogoetak publikoki azaltzeko eskarmenturik eza; bizi garen gizartearen isla - eztabaida gehienak kirola, gai arin edo hitz batez esanda, pentsarazten ez duten arazoei buruz izaten dira; eztabaida bera txarto suspertuta eta zuzenduta izatea...

3.- Zinea gustatzen zaie, baina **ikasleek ez dute zinea ikusten ikasi**; hortaz, gaurko filmak klasikoak baino estimu handiagoan dauzkate. Biak tartekatzen saiatu naiz.

4.- Betiko filmak -hau da, zerrenda eta testu gehienetan aipatzen direnak- jarri beharrean, beste film batzuk bilatzen saiatu naiz. Zalantzarik gabe, **ikasleek ikusi ez badute, arrakasta eta arreata ziurtzat jo daitezke.** Honen bestalde, zinemasaleak izatera behartzen gaitu. Jakina, gelan jarri aurretik filma ikusi egin behar da, baita informazioa bilatu ere.

5.- Etekin handiagoa atera ahal da filmean **gaia zeharka** agertuz gero, kasu hauetan gaia normalean naturaltasun handiagoz aurkezten baita. Adibidez, arrazakeriaz aritzeko hobe da Clint Eastwood-en True Crime, American History X baino. Zinea, azken

batean, mundua leiho batetik erakustea da eta zaila da leiho horretatik sartzen den guztia erabat kontrolatzea.

6.- Gelako **kideekin batera eta bakarrik ikustea abantaila** izan dela esan behar dut, emanaldia hurbilago sentitzen dutelako, eztabaidari lagunduz.

7.- Ikastetxeetan **bideoteka antolatzea** beharrezkoa da. Eta orain esandakoari lotuta, aurkitutako arazorik larriena azaldu nahi dut: **oso bideo gutxi dago euskaraz.** Euskaraz zineman sartu nahi badugu, nire ustez, bideoetara edo oraingo DVD formatora eramatea errazagoa eta eraginkorragoa litzateke. Izan ere, zinea aretoa egun batzuetan betetzea zaila da, baina bideoak talde txikitara edo e-

txeetan oso erraz ikus daitezke. Hezkuntza Sailak eta Kultura Sailak ETBren laguntzarekin film gehiago euskaratzeko eta merkatuan jartzeko ardura hartu beharko lukete. Esate baterako, zinea klasikoarekin literatura unibertsalarekin egin den bexalaxe egin liteke.

Hauxe izan da Filosofia jakintzagaiari zinearekin izan dudana nire esperientzia zinea. Ez dut amaitu nahi pasa den urtean zinea eta filosofiari buruz -batez ere Batxilergoko 2. mailari begira- agertu zen liburu interesgarri bat aipatu gabe:

CABRERA, Julio: *Cine: 100 años de filosofía. Una introducción a la filosofía a través del análisis de películas.* Ed. Gedisa, Barcelona, 1999.



Paulo Freire lau haizetara



Goiko argazkietan, artikulua ren egileak

Aurtengo irailaren 19tik 23ra Evoran (Portugal) pedagogia kritikoari buruzko jardunaldiak ospatu ziren. Jardunaldi internazional horietan hainbat herrialde-tako 400 partaide bildu ginen (Portugal, Brasil, Amazonia, Euskal Herria, Frantzia, Espainia, Estatu Batuak, Cabo Verde...). Lau egunetan zehar Paulo Freireren hezkuntza planteamendu filosofikoaz luzez aritu ondoren, bere seme Lutirekin elkarriketa bat izatea lortu genuen bere bizitzari hurbilketa txiki bat eginez. Luti Freire, Paulo Freireren seme gazteena eta makume eta gizonen zain-tzailea da.

Amagoia Etxeberria
Saioa Mujika
Alaitz Muro

Gizarte Pedagogikoa ikasleak



Freireren seme gazteenarekin, Lutirekin, hitz egiten.

Zer garrantzi izan du Elza Maia bere lehen emazteak Paulo Freireren bizitzan eta obran?

Garrantzitsua da eta gutxitan aipatzen da gure amak izan zuen garrantzia. Ez zen pertsona aditua akademikoki behintzat, baina Rezifeko irakasle eta eskola bateko zuzendaria izan zen. Hau guztia alde batera utzi zuen familiakoei dedikatzeko. Beraz, pertsona bezala ezagutzera emateko eta emakume bezala errekonozitzeko beharra dago. Alfabetatzearen lehenengo frogan adibidez, ondorioak ikusi eta gero gure ama alde teknikoaz arduratzen hasi zen, eta, al-diz, alderdi filosofikoaz eta praktikoaz.

Zein izan da zuen aitarekin izandako harremana?

Gurekin hitz egin nahi zuenean ez zituen arauak jartzen, oso gozoa eta maigarria zen. Beldurtu egiten nahiz berak orain eta lehen internazionalki duen dimentsioarekin nahiz eta etxean hori ez islatu. Gure amak etxeko arazoak konpontzeko gaitasun psikologiko handia zuen, batzuetan zaila baitzen aitarengana hurbiltzea oso pertsona sentibera zelako. Beraz, gure ama bitartekari gisa ibiltzen zen gu eta aitaren artean.

Paulo Freire 1921.eko irailaren 19an jaio zen Rezifeko Casa Amarela etxean (Pernanbuco, Brasil). Bere familiarekin Jaboatãora joan zen, Rezifetik 18km-ra dagoen herri txiki batera. Han berak 13 urte zituelarik bere aita hil zitzaion eta mina eta atsegina bereganatu zituen, bere lagunengandik elkartasuna eta amaren oinazea sentitu zuelarik. Bitartean bere ezagutzak zabaltzeko grina garatzen hasi zitzaion.

Rezifeko Oswaldo Cruz ikastegian ikasi zuen ondoren Zuzenbide Fakultatera joanik. Giza Zientzien arloan zeukan aukera bakarria izan zen, oraindik Pernanbucon ez baitzegoen heziketako prestakuntzako goi mailako ikasketarik.

Zuzenbide ikasketak amaitu aurretik Lehen Hezkuntzako maistra zen Elza Maia Costa de Oliveira ezagutu eta berarekin ezkondu zen. Elzak eragin erabakigarria izan zuen Paulok bere Zuzenbide ikasketak utzi eta pedagogiara dedikatzeke. Alfabetatze lanaren lehenengo saioan, Brasilgo Casa Amarelan, Elzak eta Paulok bost auzokide ez-alfabetatuekin metodologia lantzen hasi ziren. Garrantzitsua da eta gutxitan aipatzen da Elzak izan zuen garrantzia. Ez zen pertsona aditua akademikoki behintzat, baina Rezifeko irakasle eta eskola bateko zuzendaria zen.

Pernanbucoko Hezkuntza eta Kultura Sailean egin zuen lan Freirek, han helduen alfabetatze metodoa zehazten hasi zela. Bere tesian ikaslearengan zentratutako eskola demokratikoaren beharra islatu zuen, bere buruari eraldaketa sozialak bultzatzen zion kontzientzia kritikoa zabalduz.

Freirek hezkuntzarekiko duen ikuspuntua hezitzaile kritiko eta aurretiko irakas-praktikarako ezinbestekoak diren jakiteak kontsideratzea izango litzateke. Horretarako gogoe-ta kritiko bat proposatzen du, zeinetan teoria eta praktikaren harremana ezinbestekoa den. Jarduera horretan hezigaiak jakite ekoizpenean subjektutzat hartu behar du bere burua. Hor-taz, irakastea ez da ezagutza transferi-

tze hutsa. Irakastea ezagutza eraikitze-ko ahalbidea sortzea da.

Planteamendu hori testuinguru demokratiko batean murgildu behar-ko litzateke, horrela gaur egun hain nagusitua dagoen hezkuntza bankarioari aurre egin geniezaiokeelarik.

Sistema kapitalistak bermatzen duen irakaskuntza bankarioak hezi-gaia eta hezitzailearen sormena de-formatu egiten du. Honi aurre egin ahal izateko modu bakarria errebeldiari eustea litzateke, hau da, bankarismo-aren ahalmen pasibotzailearen aurka inmundatzea litzateke antidotorik e-gokiena.

Bere lanaren hedapena

1961etik aurrera Paulok heziketa eta herri kulturaren alorrean lan praktiko zabala burutu zuen. Rezifen pertsona helduen hezitzaile gisa ibili zen, hitz sortzailearen metodoa garatuz. 1964eko estatu kolpeak ahalegin hauek guztiak bertan behera utzi zituen. Paulok praktika elkarriketaz-zailearen alde eta autoritarismoaren kontrako proposamena planteatu zuen. Bere ustetan, pertsonak beraien artean komunikatzeko jaiok dira eta askatasunerako ekintza pedagogikoa gauzatzeko, aldeko baldintza ekono-

mikoak, sozialak eta politikoak erabili behar ditugu.

Freirek ezinbestekoa jotzen du hezigaiak subjektutzat hartzea bere burua eta hortarako berrezagutzeko gaitasun eskubidea aldarrikatzen du. Izakiak bere burua onartzeak izaki pentsatzailea, komunikatzailea, eraldatzailea, sortzailea eta amesgilea dakar, amorrua sentitzeko eta maitatzeko gai dena.

Sistema kapitalistak bermatzen duen irakaskuntza bankarioak hezigaiak eta hezitzailearen sormena deformatu egiten du.



Goulart lehendakariaren gobernu zapuzketak 1964ean kartzelara eta geroago erbestera eraman zuen. 1964-1969 bitartean Txilen bizi izan zen, bere teoria eta praxia garatzen jarraitzeko toki ezin hobea aurkituz. Txilen lau urte eta erdi egon zen, helduentzako hezkuntzaren lanari jarraipena eman ziolarik. Garai honetan Zapalduen Pedagogia (1968) liburua idatzi zuen. "Isiltasunaren kulturaren erdian, Brazilen, eta Hirugarren Munduko gizona naizen aldetik, isiltasunaren kultura horretako herri haietan bertan sortutako hezkuntza teoria lantzen hasi nintzen, eta ez helduen alfabetatzerako metodo mekaniko bat...".

1969an UNESCOko aditu izendatu zuten. Urte berean Harwardeko unibertsitatean eskolak ematen zituen. Hurrengo urtean aipaturiko eskuizkribua argitaratu eta bere lanik garrantzitsuena bilakatuko da: Pedagogia do oprimido.

Estatu Batuetako garaia ere oso garrantzitsua izan zen, hainbat unibertsitatekin harremanetan jartzeko aukera izan baitzuen, bai amerikarrek eta bai europarrek. Hau guztia zela medio, bere hezkuntza filosofia landuz eta eratuz joan zen.

Beraz, bere ibilbidea bi zatitan bana dezakegu; bata Txilen burututako alfabetatzea, eta bestea Estatu Batuetan, eta beranduago Suitzan, non bere hezkuntza filosofia hedatu eta sakondu baitzuen. Berarentzat pertsonak beraien hitzak esaten ikasi behar dute, ez besteenak errepikatzen. "Elkarriketaren bitartez gizabanakoa bere historiaren sortzaile eta subjektua bilakatzen da, heziketa prozesua ezin go delarik inoiz neutrala izan"

Harwardeko irakastaldia eta gero Ginebrara joan zen, non Elizetako Munduko Kontseiluko Hezkuntza Sailburu izendatu zuten.

1980an Brasilerara itzuli zen. Hasieratik hasi behar izan zuen 16 urteko ausentzia izan ostean.

1989 eta 1992 bitartean Sao Paulo-ko Hezkuntza Udal Idazkaritzako ardura hartzen du. Ondoren Sao Paulo-

ko Unibertsitateko eskolen, bere jatorrizko Rezipien eta arrazoi desberdinentzat egiten dituen bidaien artean banatzen du bere denbora. Idazle eta irakasle lanetan gehiago dabilen urte horietan sari berezi bat jasotzen du, besteak beste.

Bartzelonan (1994) Pedagogia kritikako biltzarrean parte hartu zuen eta entzuleria sorgindu egin zuen. Berriro ere bere presentzia eta diskurtsoa errealitate bihurturiko esperantza eta utopia aire bat izan zen. Bere ikastaldi eta bidaiekin jarraitzen du, ekoizpen literarioa gauzatzea oztopatu gabe. Subjektibitatea-objektibitatea, gorpuztasuna-abstrakzioa, poesia-zientzia uztartzen ditu.

Bere eguneroko bizitzan kezka bat sortzen zaio: "Zein heziketa mota behar dute hurrengo mendeko gizon eta emakumeek, ekonomia, hedabide eta kulturaren globalizazioaren, kapitalismoaren, eta berean, nazionalismo, arrazakeria, bortxa eta indibidualismoaren nolabaiteko garaipenaren mundu konplexu honetan bizitzeko?".

Pertsonak beraien artean komunikatzeko jaioak dira eta askatasunerako ekintza pedagogikoa gauzatzeko, aldeko baldintza ekonomikoak, sozialak eta politikoak erabili behar ditugu.



Portugaleko kongresura Euskal Herritik joan zen ikasle-taldea.

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik



Berriak azaroa

KILI eta KOLO



Montse Martinez, Arantza Ibarra eta Txabi Esnal KILI ETA KOLO proiektuaren egileak.

Kili eta Kolo

2 urteko haurrekin lantzeko materiala

Ibaizabal argitaletxeak bi urteko haurrentzako Kili eta Kolo proiektua aurkeztu du. Adin horretan gero eta haur gehiago eskolatzen dela harturik eta hezitzaileen aldetik eskakizuna dagela ikusirik, bi urteko haurrentzat, beraien hezitzaileentzat eta familiarentzat egokitutako materiala da.

2 urtetik 3rako etapa berezia dela kontuan harturik, **Kili eta Kolo** materiala ere berezia dela esan daiteke. Adin horretako haurrekin hainbat urtez lanean aritu diren Arantza Ibarra, Montse Meana eta Txabi Arnal izan dira proiektu honen egileak.

Ibaizabal argitaletxeak Gasteizko Sansomendi Haur Eskolan dabilzan hiru hezitzaile hauengan jotzeko arrazoia beraien lan egiteko modua izan da. Nekane Umerez Ibaizabalgo edizio honen koordinatzaileak azaldu digunez "izugarri gustatu zitzaigun beraien lan egiteko modua hiru alderdi hartzen zituztelako kontuan: hezitzailea, haurra eta familia. Hezitzaileen aldetik, baliabide pila bat ziztuztela ikusi genuen, eta hori zen 2 urteko haurrekin dabilzan hezitzaileek eskatzen zutena. Haurren kasuan, urte asko daramatzate 2 urteko

haurrekin lan egiten eta gertutik eza-gutzen dituzte. Eta azkenik, teorian ez ezik, praktikan ere familia inplikatzeko proposamen eta iradokizun ugari zituztela ohartu ginen".

Gauzak horrela, iazko ikasturtean lanean jardun ondoren, aurten zabaldu da Kili eta Kolo proiektua. Gure eskuetan jarri duten materiala karpeta batean biltzen da, eta hiru multzotan bana daiteke barruko edukia: hezitzaileentzako gida, gelarako materiala eta haurrentzako materiala. Lehenengoak proiektuaren nondik norakoak biltzen ditu, bigarrenak gelako ekintzak motibatuzko, girotzeko eta estimulatzeko balio du, eta hirugarrenak haurrek lantzeko proposamenak biltzen ditu. Egileek garbi utzi nahi izan dute materiala irekia dela. "Ez genuke inolaz ere nahi materiala ezinbestez egunero egin beharreko lan

bihur dadin. Horrexegatik, koadernoetan eskaitzen ditugun jardueri jolas deitu nahi izan diegu, eta ohiko fitxen esanahitik aldendu egin nahi izan dugu". Fitxen bidez antolatutako lana "itxitako" lan bezala ulertzen dela diote eta sarritan fitxen bidez hezitzaileak zer lan egin agintzeaz gainera, hurrek non, noiz eta nola lan egin behar duten ere ezartzen dela. "Guk proposatzen ditugun jolasek, ordea, beste helburu batzuk dituzte, besteak beste, dibertimendua, aisialdia, lilura, estimulazioa eta orijinaltasuna. Behin eta berriz diogu guk proposamenak egin ditugula material honekin, baina gero norberak erabakiko duela non, noiz eta nola erabili bere egoeraren, haurren eta momentuaren arabera".

Horrenbestez, Kili eta Koloren funtzioa hezitzaileen lanerako lagungarri eta osagarri izatea da. Egileen iritziz denbora asko erabili ohi da material berria bilatzen, gauzak prestatzen eta abar, eta ondorioz haurrak nola dauden behatzeko astirik ez da izaten. "Material hau eskuetan izanda, horretarako eta beste hainbat gauzarako denbora gehiago geldituko zaie hezitzaileei".

Berritasun ugariko lana da

Zerbait berria eskaini nahi izan dute, eta berritasun hori hainbat alderditan nabari daiteke. Hasteko, materialaren tamaina ohikoa baino handiagoa da, bai kuadernoena eta bai papearena. 2-3 urteko haurrei egokitutako neurria da, adin horretan leku asko behar izaten baitute eta askotan hori ez da aintzat hartzen. Horrez gain, jolasetarako paperak hainbat kolore eta irudi dituzte eta probokatu, iradoki eta estimulatu egin nahi dute haur bakoitza zer egiteko gai den ikusteko. Ipuinak jatorrizkoak eta adin horretako haurrei egokitutakoak dira, anitzak eta gai eta arazo ugariri buruzkoak. "Askotan haurrari arrotzak egiten zaizkion gaiak eta irudiak erabiltzen ditugu" egileek diotenez. "Adibidez, trena, kapela, urtaroak... Guk

objektu horiei esanahia eman diegu. Horrela, edozein kapela marraztu beharrean, pertsonaia baten kapela agertzen da eta zentzu afektiboa ematen diogu horrekin". Kohesioa eta zentzua ematen dio horrek. "Izan ere, ez genuen nahi pertsonaiak maskota hutsak izatea, eta aktibitate motibagarrien bidez pertsonaia afektibo bihurtu ditugu, beren sentimendu, arazo, behar eta izaera duten pertsonaiak. Gelako lagun bihurtzen dira eta horrek motibazioa sortzen du".

Materiala egiteko orduan, euren esperientzian oinarritu direla azaldu digute egileek, euren eguneroko lanetik sortutakoa da, 2-3 urteko haurrentzat pentsatua eta egokitua, eta ez beste adin batekoekin egiten denaren egokitzapena. Lanaren abiapuntua haurrak izan dira, eta beren mundu afektiboari garrantzia handia eman zaio. "2-3 urteko haurrak sentimenduen munduan murgilduta daude, eta oso garrantzitsuak dira afektibitate eta sentimenduak. Horregatik, sortu ditugu lehen aipatu ditugun pertsonaiak afektiboak" diote. Horrekin batera, erreforman hainbeste aldiz aipatzen diren balioak eta zeharlerroak ere aintzat hartu dituzte aktibitateetan; besteak beste, errespetua eta ingurumenaren zainketa, material hondakinekin egindako lanak, hezkidetza, elkartasuna eta aniztasunaren errespetua.

Familiaren parte hartzeari ere garrantzi handia ematen diote. Horren isla da karpeta barruan aurki dezakegun familarentzako gidatxoa. Haurren hezkuntzari buruzko hainbat azalpenen biltzen dira bertan eta etxean egiteko zenbait jarduera ere proposatzen dira. Modu horretan, eskolaren eta etxearen arteko lotura estutzeko bidea ematen da.

Orain arte jasotako erantzunen eta iritzien arabera, proiektuak harrera ona izan duela diote egileek eta argitaletxeko koordinatzaileak. "Ideia eta proposamen asko zituzten" dio Neka-

ne Umerezek, "baina urtebetean egin ahal izan dena jaso dugu Kili eta Kolon. Denborarekin materiala osatzen joango gara eta beste hezitzaileen iradokizunak eta proposamenak ere gehituko ditugu".

Kili eta Kolo proiektuko materialak

Kili eta Kolo: hezitzaileen-tzako gida

Gida honetan 2 urteko haurren ezaugarriak deskribatzen dira, eskolaren eginkizuna, proiektuaren oinarri metodologikoak, zeharlerroen tratamendua eta, gainera, proposamen didaktiko bakoitza osatzen duten atalen azalpen orokorra eskaintzen da, hezitzaileek hobeto uler ditzaten proiektu honen oinarriak eta ibilbidea.

Kili eta Kolo: haurrentzako jolasen maleta

Matelan material hau topatuko dugu:

- Kili eta Kolo: jolasen koadernoak
- Kili eta Kolo: gehigarriak
- Koloretako koadernoak
- Kili eta Kolo: abestien kaseta
- Kili eta Kolo: familiarentzako gida

Kili eta Kolo: ipuinak, olerkiak, kantak... karpeta

Karpeta honetan hezitzaileari eskolako jardunean erabilgarri izango zaizkion hainbat baliabide aurkezten dira, hala nola:

- Ipuinak
- Kili eta Kolo txartelak
- Poemen laminak
- Abestien laminak
- Artelanen laminak
- Argazki iradokitzaileak

Kili eta Kolo: hormirudiak

Sei hormirudi eskaintzen dira lau laminatan banatuta.

Euskaraz mintza proiektua kaleko euskara bultzatzeko

Zazpi ikastetxe publiko dira proiektu honekin hasi zirenak: Donostiako Aitor ikastola, Iruñeko Alaitz eskola publikoa, Amaiur udal ikastola eta Axular Udal ikastola, Basauriko Ariz ikastola, Oreretako Langaitz ikastola eta Kanboko eskola publikoa. Dena den, Iparraldeko beste 20 eskola publiko, Iruñeko San Francisco eskola publiko eta Irurtzongo eskola publiko ere sartu dira proiektuan. Euskal Herriko osoko eskola publikoak batzen dituen lehen proiektu komuna da berau.

Sortzen-Ikasbatuaz-eko Nafarroako koordinatzailea den Rikardo Ederak prentsaurrekoan azaldu zuenez, "gure nahia ikasleak gelatik at euskara erabiltzeko gai izatea da, eta horregatik garrantzitsua da kaleko euskara aruntaren erregistroa menperatzea. Zeregin hori zuzenean eskolari ez badagokio ere, denon ardura dela uste dugu. Izan ere, guraso asko eraldunak edo euskaldunberriak dira eta ez daukate euskarazko erregistrorik haurrei erakusteko". Gurasoek ez ezik, irakasleek ere askotan denbora falta izaten dute, eta horregatik, begiraleen bidez antolatu dute proiektua.

Urtxintxa Aisialdi Eskolako begiraleak arduratu dira irakasleei 12 orduko ikastaroak emateaz, eta ondoren, jolastorduetan ibili dira dabilta oraindik ere irakasleekin batera. Zerbait ikastetxetan jangelan egin dituzte jolasak. Iparraldean, berriz, antola-

keta desberdina izan da. 20 ikastetxe publikotako euskarazko irakasleak jaso dute ikastaroa eta norberak bere eskolan jarriko du praktikan.

Ikastaro horietan jolas tradizionalak erakutsi dizkiete irakasleei. Bitarteko hori aukeratzeko arrazoi bat baino gehiago egon direla eman zuen aditzera Ederrak. "Alde batetik, jolasek duten balio pedagogikoagatik. Bestetik, egokiak iruditu zaizkigu lehiakortasunik ez dutelako sortzen. Gainera, jolas horiek errekeratzea interesgarria da, kirola lekua kentzen ari baitzaie. Eta azkenik, telebistak eta beste medioek eskaintzen ez dituzten hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte jolasen bidez".

Hemendik aurrera eta abendura bitartean begiraleek ikasleei emango dizkie saioak. Gurasoei ere jolasak ikasteko aukera luzatzen zaie, horien betebeharra ere funtsezkoa dela ikusirik.

Lan hau guztia ebaluatzeko eta ondorioak ikusteko amaieran ebaluaketa egingo da. Rretarako, euskararen neurketa burutuko da jolastokietan eta pasilloetan. Lehen ebaluaketa bat egin dute jadanik, eta jolas tradizionalak ikasi ondoren, begirale edota irakasleekin egon ez arren, jolas horiekin eta euskaraz jarraitzen dutela atzeman dute. "Haurrak gustura ikusten ditugu, eta hizkera ez-formala lantzeaz gain, taldeko harremanak ere sendotzen dituzte jolasekin".



Sortzen-Ikasbatuaz-ek "Euskaraz Mintza" izeneko proiektua aurkeztu du. Euskal Herri osoko hainbat ikastetxe publikotan martxan jarri den proiektu pedagogiko honen helburua nagusia haurrek kaleko euskararen erregistro hurbilak ezagutzea da euskararen garapen integrala ahalbidetzeko. Horretarako, proiektuak jolasak ditu oinarri eta horien bidez bultzatu nahi da haurren arteko hizkera arrunta.



Uda Leku elkarteak zenbait ekimen murriztu ditu diru faltagatik

Baionako Uda Leku elkarteak 17 urte daramatza lanean eta orain bere zenbait jardun murriztu egingo dira diru arazoak direla-eta. Hori erabaki zen urriaren 15ean Arbonan ospatu zen bestan eta batzar nagusian. Finantzaketa faltaren ondorioz ezin izango du bere proiektu guztiakin aurrera jarraitu.

Uda Leku elkartearen helburua hezkuntza herrikoiaeren arloko ekintzen bitartez euskararen erabilera sustatzea da. Xede horrekin arlo anitzetan prestatzen ditu ekintzak: hezkuntzan, aisialdian, haurren harrera edota zainketan, formakuntzan, kulturean, eta ororen gainetik, euskararen erabilpenaren sustapenean. Batzuk aipatzearren: udako zein neguko egonaldiak, Baiona, Amikuze eta Hendaiaiko bilguneak, Miarritze-ko haurtzaindegia, zine hamabostaldia, tailerrak, kultur osagarriak, ikastetxeekin egiten diren irteerak eta txangoak... Uda Leku- ren betekizuna familiarren eta ikastetxearen osagai izatea da.

Hori guztia aurrera ateratzeko berrantolaketa bat egin zuten elkartearen barruan. Orain, ordea, egoera ekonomiko larrian aurkitzen da, aipatu berrantolaketa diru-iturri bilaketaren kaltetan egin baita. Botere publikoetatik jasotzen duten dirulaguntza %1 baino gutxiago da.

Horrenbestez, Hego Euskal Herriko udal guztiei gutun bat igorriko die dirulaguntza eskatuz. Horrekin batera, elkartearen lana ezagutzea eta publikoki esatea ere eskatu diote. Hori ikusirik, Iparaldeko udal eta instituzioek ere laguntzak luzatuko dituztela espero dute.



Urriaren 26an Donostiako campusean hartutako hainbat irudi.



Presoak irakasle bihurtu ziren EHU

Urriaren 26an Donostiako Ibaeta-ko campusa itxuraz aldatu zen. Ikasle Abertzaleak-ek "Preso eta iheslariekin herri eskolak" antolatu zituzten eta 3.000 ikasle inguruk parte hartu zuten. Herri eskola horietan bi aldarrikapen nagusi bildu ziren: preso eta iheslariek nazio eraikuntzan parte hartzeko duten eskubidea eta Euskal Eskola Nazionalaren aldarrikapena.

Egun osoan zehar burutu ziren hitzaldietan presoek, iheslariek eta beraien lanean jarduten dutenek prestatutako lanak aurkeztu ziren. Gai eta esparru ugari landu ziren horretarako egokitutako guneean: Zuzenbide Gunea, Teknologia Gunea, Arte Gunea, Zientzia Gunea, Munduaren Gunea, Literatura Gunea eta Historia Gunea. Guztira 21 hitzaldi egin ziren, eta gai aldetik denetik egon zen: errepre-

siorako legeak, euskal justizia, nazio eraikuntza eta teknologia berriak, kontrol soziala, ikasketak gartzelan, gatazka ekologikoa, abertzaletasuna eta nazioartekotasuna, euskal diaspora munduan, euskal literatura kartzelan...

Besteak beste, Mikel Egibar, Jokin Urain, Antton Lopez Ruiz Kubati eta Joseba Enbeita euskal presoek egin dako lanak aurkeztu ziren. Nekane Txapartegi, Jose Antonio Torre Altonaga Medius, Mikel Korta, Arnaldo Otegi, Mitxel Sarasketa eta Tomas Karrera preso ohiak ere hizlari izan ziren. Zenbait areto gainezka egon ziren.

Hitzaldiez gain, kontzentrazioak egin ziren Ibaetako campuseko fakultateetan eguerdian, eta egunari amaiera emateko manifestazioa egin zen Ibaetatik hasi eta Bulebarreraino.

Giza eskubideak 2000 lemapeko idazlan eta kartel lehiaketa

Lehiaketaren gaia "Giza eskubideak eta bakea" da eta EAEko ikastetxe guztietako DBH eta DBHOko ikasleek har dezakete parte.

Bi maila bereiztuko dira: 15 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak. Maila bakoitzeko sari hau emango da:

bi lagunentzako astebeteko bidaia Nazio Batuek New Yorken duten egoitzara eta ikaslearen ikastetxerako plaka oroigarri bat.

Lanak 2000ko azaroaren 27a baino lehen aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritzan. Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Deialdiaren xehetasun gehiago 2000 urriaren 27ko EHAAn jaso dira.

Hizkuntzen trataera integratua ikastaro-mintegia

Lekarozeko ILZk antolatuta go-goeta eta eztabaidarako gunea izango den ikastaro-mintegia burutuko da azaroan hasi eta maiatzera bitartean.

Hizkuntzen trataera integratua da ikastaroaren izenburua eta hauek izango dira aztergai nagusiak:

- Hizkuntzak eskolan, hizkuntza ukipen egoeretan.

- Programa eleaniztuntzaileen erronkak: kalitaterako betekizunak.

- Atzerriko hizkuntzen trataera programa elebiduntzaileetan.

- Etorrinen hizkuntzen trataera programa elebiduntzaileetan.

- Hizkuntzak eskolan: helburuak eta antolaketa. Trataera integraturako oinarriak.

Hizlariak honako hauek izango dira: Ignasi Vila Gironako Uniber-

tsitateko irakaslea, Joaquim Arnau Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea, Josep Maria Artigal gaien aditua eta aholkularia, Uri Ruiz EHUko irakasle eta M^a Jose Eguzkiza gaien aditua eta eskola irakaslea.

Eskola elebidunetan sartzen diren hizkuntzei nolako "trataera" eman beharko litzaiekeen aztertu nahi da, eta horretarako aipatu gaien gainean hausnartu, eztabaiatu eta ondorioak aterako dira.

Ikastetxe elebidunetako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei zuzendua dago.

Informazio gehiagorako:

- Nafar Gobernuko Euskara Zerbitzuko Glotodidaktika bulegoa

Tel.: 948 42 65 87

e-mail: glotoeusk@cfnavarr.es

- Lekarozeko ILZ

Tel.: 948 58 06 06

e-mail: caplekar@pnte.cfnavarra.es

Hezkuntza zentro- en zuzendaritza eta kudeaketa

jardunaldiak

Abenduaren 11 eta 12an "Hezkuntza zentroen zuzendaritza eta kudeaketa" jardunaldiak burutuko dira Donostiako Pedagogia Fakultatean. Lehenengo egunean hezkuntza formaleko hainbat partaide izango dira, eta bigarrenan hezkuntza ez-formalekoak. Hezkuntza Zentroen zuzendaritza eta kudeaketaren helburu bezala hauek planteatzen dituzte: euskal eskolaren egoera aztertzea kudeaketaren ikuspegitik, zuzendaritzak dituen arazoak identifikatu eta irtenbideak proposatzea, Euskal Herriko hezkuntza sistemen diagnostikoa egitea eta zuzendaritzaren lan egoera aztertzea.

Informazio gehiagorako:

EHUko Hezkuntza Zientzietako Fakultatea

Tolosa hiribidea 70

20018 Donostia

Tel: 943 01 80 00 Faxe: 943 31 10 56

Idazkaritza: Isabel Pellegrin

Gazteentzako ingeles frogak

Duela gutxi, Cambridgeko Unibertsitateak 7-12 urte bitarteko ikasle gazteei zuzenduriko ingeleseko azterketa eredu berriak eman ditu argitara. Hiru maila bereizi dira: "Starters" edo hastapeneko, "Movers" erdi mailakoa eta "Flyers" hirugarrena. Maila bakoitzean irakurketa-idazketa, ulermena eta oinarriko elkarrizketarako gaitasuna neurtuko dira. Ikasleek eskolan bertan egin ahaliko dute azterketa, haurrek ezaguna duten ingurunean, alegia.

Azterketak Lehen Hezkuntzako ikasleen interesen inguruko gaietan oinarriturik daude, hala nola ingeleseko orduan ikasgelan landu dituzten ekin-tzetan eta puzzleetan. Halaber, frogak adin horretako haurrei egokitutako materialak erabiliz burutzen dira, hau

da, koloredunak eta marrazki bizidunen estilokoak.

Ikasle bakoitzak frogaren ondoren Cambridge agiria jasoko du. Agiri honekin haurren ezagutza era positiboan neurtu nahi da, hots, dakitenagatik sarrituz, eta ez oraindik ez dakitenagatik.

Froga horiekin bi helburu bete nahi dira; batetik, eskoletan hasita gaur egun ikasleen motibazioa mantentzea; eta bestetik, haur horien irakasleek erabiltzen duten metodologia komunikatibo hori ebaluatzen laguntzea.

Informazio gehiagorako:

Julie Mills edo Monica Domingo

Deustuko Britainiar Institutua

Lehendakari Agirre, 29- 2.

Bilbo

Tel.: 94 476 36 50

Sofrologiako Oinarrizko I. Ikastaroa

2001eko martxoaren 3, 4 eta 5ean Sofrologiako Oinarrizko I. ikastaroa burutuko da Bilbon. Mediku, psikologo eta psikopedagogoei zuzendutako ikastaroa.

Sofrologia teknika psikoterapeutikoa da eta nortasunaren oreka ziurtatzea eta bereziki tentsazio mingarriak eta ondoez psikikoa kontrolatzea du helburu.

Informazio gehiagorako:

Sofrologiako Nazioarteko Eskolaren VIII. Sailsanta Maria kalea 8, 1.

48005 Bilbo

Tel.: 94 416 33 69

e-mail: ibe@euskalnet.net

Argitalpenak



Mantxut?

Asisko Urmeneta eta "Zazpiak Batman"
Komunikazio Biziagoa
63 orr.

Liburuxka honek euskarazko lokuzio, esklamazio eta esamoldeak jasotzen ditu, bai euskarazko tradizioetik hartuak eta bai asmatutako berriak. Lokuzio bakoitza irudi esanguratsu batez lagundurik eta gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko balioki-deekin dago.

Asisko Urmeneta eta Jon Alonsok ekin zioten bilduma hau egiteari eta euskara erregistro berriak sortzeko eta bere beharrei erantzuteko gai dela erekutsi nahi izan dute. Proiektuaren bi bultzatzaileekin batera beste batzuk ere jardun dira eta guztien artean Zazpiak Batman taldea osatu dute.

Taldearen lehen lan honen helburua ez da esapideak buruz ikastea, beraien erabilera berri bat ezagutzera ematea baizik. Hau hasiera baino ez da izan, jarraipena izango baitu. Esapideen eremua zabaldu asmo dute eta Interneten ere jarriko dute. •



Zuzendaritza Teknikak 1
Pello Aramendi
Erein
197 orr.

Liburu honen helburua zuzendari bere lana errazteko erabil daitezkeen teknikak azaltzea da. Teknika horiek ikasteko kasu azterketa eta kasu metodoa erabiltzea proposatzen du egileak. Kasu azterketan erakundeetan gertatzen diren arazoak planteatzen dira. Eta kasu metodoarekin arazoaren diagnostikoa egiten da, gero arazoei irtenbideak emateko. •



Eskusoinuaz
Xabier Zabala
Hik Hasi
103 orr.

Liburu honek eskusoinuaz jotzeko abesti herrikoiak biltzen ditu. Zailtasun ezberdineko 42 abesti daude, sailkapena baxuen arabera egin delarik. Multzo bakoitzaren hasieran baxuak nola jotzen diren azaltzen da. •



Txirulaz CDa
Xabier Zabala
Hik Hasi

Txirulaz I eta II liburuetako 16 abesti biltzen dira CD honetan. Abestiak instrumentalak dira eta bakoitza bi modutara dago: txirulaz eta txirularik gabe. Horrela, hasieran abestia instrumentu guztiekin entzun daiteke, eta gero txirularik gabe, norberak txirula jotzeko aukera ematen duelarik gainontzeko musika tresnak lagungarri izanik. •

Howard Gardner

Adimen anitzen teoria: Hezkuntza jomuga (eta II)

Howard Gardnerren Adimen Anitzen teoriara hurbilpen bat egin genuen aurreko hilean teoriak atal honetan. Adimen Anitzen teoriaren ilbo nagusiak aipatu genituen, eta jarraian teoria horrek hezkuntzari egindako ekarpenak aipatu genituen. Aplikazioak bi multzotan egituratu genituen: zentroko proiektura bideratutako orientabide orokorrak eta adimenen hobekuntzara bideratutako programa psikohesitzaileak. Lehendabizikoak aztertu genituen aurrekoan, eta oraingoan programa psikohesitzaileak ditugu hizpide. Hiru bildu ditugu hemen: *Spectrum*, *Arts PROPEL* eta *Practical Intelligence for School (PIFS)*.

Lanari amaiera emateko Adimen Anitzen teoriari egindako kritikak eta ondorioak ditugu irakurgai.

Programa psikohesitzaileak

Gardner eta Harvard Unibertsitateko Zero Proiektuko bere lan taldeak Adimen Anitzen teorian oinarritutako zenbait programa psikohesitzaile garatu dituzte. Azpimarragarrienak *Spectrum*, *Arts PROPEL* eta *Practical Intelligences for School (PIFS)* dira. Denek onartzen duten tesia zera da: adimenaren jatorria ez dela finkoa, mugikorra baizik, eta beraz, estimulatu eta hobetu egin nahi dute. Jarraian, programa horietako bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenak ikusiko ditugu.

Spectrum proiektua

Gardnerren proiektu preziatuenetakoa da hau eta helburua da Haur Hezkuntzako ikasleen adimen anitzak identifikatzea eta ebaluatzea etapa honetako kurrikulura egokitutako ekin-tzen bitartez. *Spectrum* hitzak helburu hori islatzen du, gainera; hau da, 3 eta 5 urteko haurren adimen aniztasuna e-

Maria Luisa Sanz de Acedo

NUP. Psikologia eta Pedagogia departamentua



rrekonizitza lortutako informazioarekin, etapa amaieran haur bakoitzaren lehen profil kognitiboa egin ahal izateko. Profil horretan haurrak adimen indartsuak eta ahulak nola dituen espezifikatuko da. 1984an sortu zen eta esperimentu modura arrakastaz ezarri zen zenbait ikastetxe amerikarretan. Orain dela gutxi hiru bilduma argitaratu dira eta bertan biltzen dira oinarri teorikoak, ekintzak, ebaluaketa gidak eta ate-

ratako emaitzak (Gardner, Feldman eta Krechevsky, 1998a, 1998b, 1998c).

*Spectrum*en ezaugarri bereizgarriak ekintzak eta behaketarako gidak dira. Ekintzak adimenari lotutako zortzi sailetan taldekatuta daude: mugimendua, hizkuntza, matematikak, natur zientziak, gizarte zientziak, irudi artea, musika eta zientzia mekanikoak. Arlo bakoitza interes gune bat da eta ikasle guztiei dauzkaten materialak behatzen laguntzen die. Ekintzak arazo errealei erantzuten die, informazioa ematen dute irakaslea desberdintasun indibidualetara molda dadin, eta errendimenduaren maila igotzen joateko jolas libreak eta lan egituratuak ditu, Vigotskyk "hurrengo garapenaren gunea" deitzen diona (1978). Aukera ona da haurrek material erakargarriak manipulatzea, eta ingurune eta bitarteko egokia sortzen dute praktikatzen diren gaitasun espezifikoak ebaluatzea. 2. taulak gune bakoitzean lantzen diren

gaitasunen laburpena eta adierazle garrantzitsuean eskatzen ditu. Ekin-
tzeak apendizaiak eta ebaluaketa nola
norabidetzen dituzten ikusteko adibi-
de bat da.

Ekintza horiek guztiek sakontasu-
na eta zabaltasuna ematen die haur cu-
riculumari, ez baitira kalkulua, irakur-
keta eta idazketa estimulatzeaz soilik
arduratzen, baita ere gauzak behatze-
ko interesa pizteaz, esanahiak eraiki-
tzeaz, oharrak sortzeaz, objektuak
produzitzeaz, konposaketak egiteaz,
besteekin ideiak konpartitzeaz eta a-
bar. Gainera, autoestimua bultzatzen
dute eta errespetua eta jarrera molda-
korra bultzatzen ditu. Ekintza bakoit-
zaren programaketan sartzen da gai-
aren sarrera, burutu behar diren gaita-
sun garrantzitsuenen definizioa, hel-
buru espezifikoaren zerranda, behar di-
ren materialen deskribapena, pausoz
pauso jarraitu behar den prozeduraren
azalpena eta ebaluazioaren gaineko
argibide batzuk. Haurrak etxean egite-
ko zenbait lan ere gomendatzen dira,
gurasoak haurren ikaskuntza proze-
suan inplika daitezten.

Spectrumen beste ekarpen ga-
rarrantzitsuak behaketarako gidak dira,
normalean ebaluaketa oso informala
baita Haur Hezkuntzan. Irakasleek jo-
kaeren oharrak hartzen dituzte, baina
oso gutxitan modu sistematiko batez.
Gida hauek informazioa kualitatiboki
zein kuantitaboki interpretatzeko au-
kera ematen dute aurretik ezarritako
kriterioen arabera. Normalean, irakas-
leek arlo bakoitzeko gaitasunekin lor-
tutako jokaerak biltzen dituzte.

Tresnabiak-ekintzak eta behaketa gi-
dak-independienteki erabil daitezke, bai-
na batera erabiltzen direnean kriterio osa-
tuagoa eskaintzen dute gaitasunen gara-
penaren, emaitza akademikoaren eta egin-
dako profilararen zehaztasunaren ingu-
ruan. Proiektu honekin esperientzia izan
duten hezitzaileek baieztatu dute oinarri-
koa dela haurren gaitasun indartsuak eta
ahulak, interesak eta jarrerak identifi-
katzeko eta dokumentatzeko zailtasun akade-
mikoetan eta arazo pertsonaletan lagun-
du ahalizateko (Campbell, 1992).



Arts PROPEL proiektua

Arts PROPEL proiektuaren helbu-
ria Bigarren Hezkuntzako ikasleei Ar-
teen eta Humanitateen inguruan pro-
duzitzen, hautematen eta hausnartzen
irakastea da (Gardner, 1989). Hiru hel-
buru horiek PROPEL izenean biltzen
dira: PRO, production, ikasleen sormen
potentzialaren garapena, batez ere
literaturan, musikan eta plastikan;
PE, perception, hautematea, Artearen
eta Humanitateen alorreko lan garran-
tziatsuenen ikasketa eta lan pertsonale-
kin konparatzea; eta azkenik L, learn-
ing, ikasketa, prozesu honen bidez
lortzen direlarik heziketa helburuak.
Berauek elkarren artean oso lotuta e-
goten dira, eta ekintza guztiek helburu
berbera badute soilik lortzen dira.

Programa honen ezaugarri aipaga-
rrienak hauek dira: lan akademikoa
proiektu forman antolatzea, paper zo-
rroak erabiltzea eta dimentsio anitzeko
ebaluazioa. Ikasleek ez dute lan kon-
kretuen gainean lan egiten, gai edo a-
razo garrantzitsu bat lantzen duten
proiektuetan baizik. Irekia eta eraka-
rregarria da beraientzat, eta eskolako
ekintza guztiak proiektu horren ingu-
ruan lantzen dituzte sei aste ingurutan.
Aipatu hiru prozesuek bideratu eta oi-
narritu behar dituzte irakaskuntza-i-
kaskuntza prozesuko lan guztiak: pro-

dukzioa, hautematea eta hausnarketa.
Beste modu batera esanda, proiektuek
hiru gauza eduki behar dituzte: artisti-
koa den zerbaiten produkzioa (idatzi,
konposatu, marraztu, margotu eta a-
bar); artisten lanen analisiak, eta lan
horri buruzko hausnarketa pertsonala.
Proiektuaren adibide bat "erretatua-
ren azterketa" izan liteke. Lan honetan
ikasleek kalitateko erretratu bat egin
beharko lukete, gai horren inguruan e-
ginda dauden lanak, teknikak, bitarte-
koak eta behar diren baldintzak azter-
tu, eta momentu oro egiten ari diren az-
tertu eta informazio hori aukera
berriak bilatzeko nola erabil dezake-
ten pentsatu.

Ikasketa eredu honek prozesua
zein produktua indartzen du, ikasleek
beraien ezagutza propioaren eraikun-
tzan aktiboki parte hartzen uzten die,
aldi berean jakituriak denborarekin
nola eboluzionatzen duen arrazoituz.
Lan artistikoaren gakoak eta zailtasu-
nak ezagutzen dituzte, eta horren ga-
rrentziaz jabetzen dira. Proiektuaren ere-
du esanguratsuak barneratzea ahalbi-
detzen du eta etengabe gauzak asma-
tzera bultzatzen du ikaslea, zerbait sor-
tzera, egindakoaz pentsatzera, gauza
berriak bilatzera eta hartutako eraba-
kiak onartzera bideratzen baitu. Lan e-
redu horrek errepasatzeko, esperi-

mentatzeko eta ikertzeko aukera ematen du. Aldi berean, irakasleek eta ikasleek euren lana ebaluatzeko aukerak ematen ditu.

Paper zorroa ez da gauza berria Artean. Lehen ikaslearen lanik hobere- nen bilduma bezala ulertzen zen, eta normalean jendeari erakusteko erabiltzen zen. Baina hezkuntzaren ikuspegi konstruktibistatik begiratura, paper zorroa gauza onen bilduma baino zerbait gehiago da: helburu, ikasgai, ekin- tza, dokumentu, esfortzu, ebaluazio kriterio eta lorpenen bilduma da. *Arts PROPEL* proiektuaren barnean, paper zorroak ikasketa prozesua, zirriborroak eta lan bukatuak biltzen ditu; gaine- ra, irakasleek eta ikasleek euren ekin- tzei buruz egindako ahozko nahiz ida- tziko hausnarketak eta komentarioa ere bai. Batzuek zein besteek egindakoa ebaluatu dezakete aldiro, gai baten in- guruko lorpenak ezagutu, ikaskuntza- ren autoerregulazioa baloratu eta gu- raso eta irakasleei ikasle bakoitzaren e- goera errearen berri eman hurrengo ikasturtearen hasieran.

Paper zorroa behar bezala presta- tzeko irakasleak behar den material guztia eskuratu behar die ikasleei, eta ondoren argibideak eman behar diz- kie behar duten gaitasuna eta ezagutza estrategikoa har dezaten. Era berean, erabaki egokiak hartzen eta akatsak berauetatik ikasteko aukerak bezala interpretatzen lagundu behar die. Pa- per zorroa ikasleak egingo du, baina beti irakasleak gidaturik.

Nola ebaluatu Arteak? Ebaluazioa i- kaskuntza-irakaskuntza prozesuko a- tal bat bezala ulertzen da, ondorioz le- ku bat duelarik paper zorroa egiteko garaian zein ondoren. Modu formal nahiz informalean egiten da. Informal- ki irakasleek ikasleen erlazioak beha- tzen dituztenean, beraien partaidetza maila, nola entzun eta erantzuten duten laneko jardunaldietan, nolako ebalua- zioa egiten duten euren alde indartsu e- ta ahuletan, nola defendatzen dituzten euren ideiak, egunkarietako idatzien kalitatea, interesgarria iruditu zaiena la- burpen batean azaltzeko eta arrazoi-

tzeko duten erraztasuna eta abar. Pen- tsatzekoa da ikasleek autoebaluazio ja- rrera hori mantendu egingo dutela i- kasketak bukatzen dituztenean.

Ebaluazio dimentsioak eta kriterio- ak alde aurretik zehaztu behar dira i- kasleen eta irakasleen artean, eta ikas- keta prozesuan barneratu behar dira. Adibidez, dimentsio bat arriskuarekin lan egiten ikastea bada, dimentsio hori ebaluatu egin behar da. Beste dimen- tsio batzuk hauek izan daitezke: asma- mena, prestutasuna, pentsamendu kri- tikoa, lanerako tasunak antzemateko gaitasuna, produkzio helburuen lor- penen, hautematea eta hausnarketa. Era berean, dimentsio bakoitza maila ba- xuan, ertainean eta altuan banatu be- har da.

Practical Intelligence for School (PIFS)

Programa honen helburu ikasleei eskolan eta mundu errealean arrakasta izateko behar dutena irakastea da. Au- toreen arabera, hori ez dago adimen a- kademikoaren baitan soilik, baita ere i- kasleen adimen praktikoaren, irakas- leen espektatiben eta eskola sistema- ren baitan. Nola ikasi behar duten ikasi behar dute, zergatik ikasten dituzten zenbait gai, horien arteko antzekota- sunak eta desberdintasunak, ekintza bakoitzean jarraitu behar diren proze- suak eta estrategiak, eta horien alderdi positiboak eta negatiboak.

PIFSren kurrikulua bost zati ditu: sarrera, irakurketa, idazketa, lanak eta ebaluazioa. Zati horiek ikasleak esko- lako lanen maneia ulertzera, beraien kideekiko elkarlana hobetzera eta bur- muina eta portaera erregulatzera bide- ratuta daude.

Gardnerren eta Sternberg-en teo- rietan oinarrituta daude, eta bereziki a- dimen pertsonaletan eta euren prakti- ketan (Sternberg eta Wagner, 1986; Walters eta Gardner, 1986). Proiektu honek hizkuntzaren, matematikaren, zientzien eta ikasketen sozialetan edukiak aberasten ditu "infusioaren metodolo- giak" iradokitzen dituen pentsamendu estrategiek. Lanerako tresnak, bai i- rakasleentzat eta bai ikasleentzat, es- kolak dituen berberak dira, baina era- bilpena da desberdina. Taldeko nahiz banakako egoera praktikoak lantzen dira, eta horien bidez ikasleek adimen anitzen erabilera egokia ulertzen dute. Programa 10-14 urteko ikasleentzat e- gin da.

Autoreek egindako lehen ebalua- zioa positiboa izan zen: ikasleek aurre- rapen esanguratsua egin zituzten gai- tasun praktikoetan eta akademikoetan (Williams eta beste, 1996). Haatik, zen- bait autore aldaketak sartzen ari dira gaitasunak eduki kurrikularretan ho- beto txertatzeko.

Laburtzeko, ezin esan daiteke aipa- tu programak hoberenak direnik, bai- na aniztasun kognitiboaren garrantzia



azpimarratzen duen teoria zientifiko batek babesten ditu. Ikaslearen kuriositatearen eta curriculum erregulararen arteko zubi izan daitezke, ikaslearen indarra eta eskolaren eskaeren artekoak, eta ikasteak eskatzen duen esfortzuaren eta kanpoko munduaren artekoak. Programa guztietako ekin-tzak egokiak direla uste da garapen intelektualean eta pertsonalean irakasleei zein ikasleei laguntzeko. Ikastetxeak sarriago erabiltzen hastea espero da, bai beren curriculum bezala, bai hasierako programazioan aurreikusitako ez ziren gaiak sartzeko, eta bai eskolaratzean eta ebaluazioan barneratzeko.

Teoriari egindako kritikak

Borondate zientifikoa eduki arren, Gardnerren teoriak jaso ditu kritikak (Link, 1993; Sternberg, 1990; Richardson, 1991). Kritika gogorrena "g" faktorea arbuia zuelako egin zaio. Nolanahi ere, Gardnerrek adimenaren kontzeptu tradizionala zentsuratu arren, ez du desgokia ikusten, eta zenbait asmo teorikotarako erabilgarria dela dio. Noski, bere arreta "Bellen kurban" agertzen ez diren adimenetan eta adimen prozesuetan zentratzen da.

Bere lankide batzuek zera galde-tzen dute: zergatik ez du sortu proba sorta bat adimen guztiak neurtzeko? Erantzuna, bere teoriaren arabera, oso sinplea da. Lan hori ez litzateke koherentea izango bere oinarritzko printzipioekiko. Giza burmuinari buruz aurkitu diren ezagutza zientifikoetan eta herrien kultur ezaugarrietan gehiago fidatzen da proba psikologikoetatik ateratako emaitza kualitatiboetan baino. Horregatik, adimenak egoera errealeak islatzen dituzten esperientzien bitartez ebaluatzea aholkatzen du. Esperientzia horietan adimen portaera beha daitekeela dio, eta ez du onartzen ez lente linguistikorik ez logikorik, arkatzezko eta paperezko probak, esaterako.

Badirudi adimen bakoitza diziplina zientifiko bat dela, eta ez giza gaitasun bat. Kritika horri aurre egiteko Gardnerrek dio gaitasun horiek adimenak direla portaera eraginkorretan

oinarrizko diren prozesu kognitibo osatzen direlako eta sistema sinboliko bat dutelako; oster, diziplina zientifiko bat ikerketa objektu bat deskribatzen, azaltzen eta iragartzen saiatzen den ezagutza antolatuta sorta bat da.

Autore batzuek diote Gardnerren adimenak pareka daitezkeela estilo kognitiboekin edo informazio jakin baten aurrean jokatzeko moduarekin. Galdera honen erantzuna ez da argia, eta estilo kontzeptuaz terminologia estilistikoko autoreen artean dauden interpretazioak ere ez.

Egiten zaion beste kritika bat giza adimena edonola banatzen duela da. Ba al dago ebidentzia zientifiko nahikorik frogatzeko trebezia bakar baten barruan alderdi batean gaitua den jendea dagoela baina beste alderdi batean ez? Badirudi baietz, aurkitu baitira ahozko informazioko irudiak produzitzeko gai diren pertsonak, baina irudi horiek biratzeko zailtasunak dituztenak. Baita ere egiazatu da burmuineko min baten hizkuntzaren alderdi gramatikalean eragin dezakeela baina alderdi semantikoa bere horretan utz dezakeela.

Bere printzipioetan kontraesan batzuk ikusten dira, eta hori da beste kritika. Adimenean alderdi genetiko eta ingurumena nahasten direla baieztatu du, eta ondoren adimen bakoitzaren garapen potentziala oso handia dela dio. Halere, Gardnerren tesia koherentea da jarrerazko genetikaren inguruan orain dela gutxi egin diren ikerketekiko; ikerketa horiek hereditaria versus aprendizaiatik dikotomia albo batera uzten dute, bi faktorek paper garrantzitsuak jokatzeko baitute gizabanako batek lor dezakeen adimen gaitasunaren mailan.

Bere adimenaren kontzeptua kultura bateko ideologia eta balioen baitan dagoela kritikatu zaio Gardnerri. Hori defendatzeko, esaten du balioen sistema ezberdinek adimenaren nozio



desberdinak inplikatu dituztela eta neurtzeko modu desberdinak. Jendeak hainbat trebezia ditu eta bereziki ebaluatu behar dira.

Adimenaren probek kultura akademikoaren balioak eta helburuak soilik islatzen dituzte.

Era berean, ez dira adimen bezala onartzen gaitasun musikala eta kinesesikoa, agian talentuak soilik aintzat hartzen dituztelako. Bere teoriaren diferentzia eta errebaso hauek eta beste batzuk ikusiz, Gardnerrek (1996) adierazi du beharrezkoa dela bere teoriaren inguruan sortzen joan diren zenbait mito zehaztea. Hau da, adimena, gaitasuna eta diziplinaren eta adimena, estilo kognitibo eta lan estiloaren arteko desberdintasunaz ari da. Gardnerrek proposatzen duen eredu oraindik osatu gabe dago, eta ikerketa teoriko eta enpirikoak egin dakizkioke.

Teoria oinarritzen den zenbait kriterio nahiko lausoak eta gogoetatsuak dira. Adibidez, adimen bakoitzaren eboluzio garapenaren ibilbidea. Arazo horiek argi erakusten dute oraindik ere asko sakondu behar dela Adimen Anitzen teorian.

Ondorio bezala

Esan den bezala, Adimen Anitzen teoriak giza adimenaren gaitasuna plurala dela dio, adimenak independente samarrak eta antzeko potentzia dutenak direla, eta faktore genetikoei eta ingurumenak baldintzatzen dutela. Haur bakoitzak hobetu dezakeen bere adimen anitzen profila heziketa ingurune batean erakusten du, material, e-kintza eta harreman pertsonal aberatsak dituen ingurunean, haiz zuzen ere. Teoria, hainbat psikologok arretaz epaitu badute ere (Sternberg, 1994), hezkuntza sistemarako erronka garrantzitsua da, eta onarpen handia du hezitzaileen eta publiko orokorraren artean.

Gaitasun intelektuaren neurria azpimarratzen du, gaitasun kognitiboaren arteko korrelaziorik ez du ukatzen, eta neurri psikometrikoak egun batetik bestera ahaztea ere ez du proposatzen. Gardner ebaluazio metodo alternatiboak erabiltzearen aldekoa da subjektuak hainbat neurketaren bidez identifikatzeko. Ikasleak zerbaitean ona dela onartzen duenean, eta irakasleek eta gainerako lagunek ere hala onartzen dutenean, ziurrago sentitzen da.

Adimen Anitzen ideiak curriculum anitzen sorreran eta ezarpenean eragin dezake, eta baita ere edukien eta kontzeptuen diziplinartekotasunean, ebaluazio prozesuan, gurasoekiko komunikazioan eta irakasleen heziketa gaitasunean.

Gardnerren proposamena etengabeko berrikuspenean eta moldaketan dago. Izan ere, teoriatik praktikarako emaria eta praktikatik teoriarako etengabea da laborategietatik zein ingurune naturaletatik ateratzen diren emaitzak direla medio. Horregatik, teoria honen ondorioak zehazteke daude oraindik. Bere programak etengabe berrikusten dira eta beraien fidakortasuna, balioa eta eraginkortasuna egiaztatzen dira, betiere heziketa eta garapena aintzat harturik.

Laburtuz, nahiko nabaria da gaitasunak banandu eta independiza daitezkeela, baina nabaria da aldi berean gaitasun orokor bat ere badagoela. Gaitasunei nolabaiteko independentzia ematen dienen eta alderdi orokorrari garrantzia ematen dienen arteko eztabaidak historia luzea du adimenaren ikerkuntzan. Hortaz, oraindik teoria gehiago behar dira bi aukerak batzeko. Nolanahi ere, adimen anitzek hezkuntza hobetzeko eredu bat osatzen dutela esan dezakegu, eta nabarmenki eragiten ari dela hezkuntzan. Halaber, ez dugu ahaztu behar iker-tzaileen eta hezitzaileen arteko truke jarraioa ezinbestekoa dela oraindik. Ezlitzateke txarra izango artikulu honek hori bultzatzeko balioko balu hezkuntzaren eta ikerketaren mesedetan.

Bibliografia

- CAMPBELL, B. (1992). *Multiple intelligences in action*. Childboard Education, 197-202.
- DAVIS, J., y GARDNER, H. (1993). *Open windows, open doors*. Museum News, 34-37, 57-78.
- FODOR, J.A. (1983). *The modularity of mind*. Cambridge: MA, MIT Press.
- GARDNER, H. (1983). *Frames of mind: The theory of multiple intelligence*. New York: Basic Books.
- GARDNER, H. (1989). *Zero-based arts education: An introduction to Arts PROPEL*. Studies in Art Education: A Journal of Issues and Research, 30(2), 71-83.
- GARDNER, H. (1993a). *Creating minds*. New York: Basic Books.
- GARDNER, H. (1993b). *Multiple intelligences: The theory in practice*. New York: Basic Books.
- GARDNER, H. (1995). *Leading minds*. New York: Basic Books.
- GARDNER, H. (1996). *Multiple intelligences: Myths and messages*. International Schools Journal, 15(2), 8-22.
- GARDNER, H. (1999). *Intelligence reframed: Multiple intelligences for the 21st century*. New York: Basic Books.
- GARDNER, H., FELDMAN, D.H., y KRECEVSKY, M. (1998a). *Building on children's strengths: The experience of project spectrum* (Vol. 1). New York: Teachers College Press.
- GARDNER, H., FELDMAN, D.H., y KRECEVSKY, M. (1998b). *Project Spectrum: Early learning activities* (Vol. 2). New York: Teachers College Press.
- GARDNER, H., FELDMAN, D.H., y KRECEVSKY, M. (1998c). *Project Spectrum: Preschool assessment handbook* (Vol. 3). New York: Teachers College Press.
- GARDNER, H., y WALTERS, J.M. (1993). *A round version*. En H. Gardner (Ed.), *Multiple intelligences: The theory in practice* (pp. 13-34). New York: Basic Books.
- PIAGET, J. (1952). *The origins of intelligence in children*. New York: International Universities Press. (Trabajo original publicado en 1936).
- ROSNOW, R.L., SKLEDER, A.A., y RIND, B. (1995). *Reading other people: A hidden cognitive structure?* General Psychologist, 31, 1-10.
- SANZ DE ACEDO, M.L., IGALLI M.D., IRIARTE, M.D. eta CARDELLE-ELAWAT, M. (1997). *Un estudio sobre la relación entre las inteligencias múltiples de Gardner y las especialidades profesionales de la Universidad Pública de Navarra*. Huarte de San Juan, Psicología, 2-3, 145-162.
- STERNBERG, R.J. (1990). *Metaphors of mind: Conceptions of the nature of intelligence*. Cambridge, England: Cambridge University Press.
- STERNBERG, R.J. (1994). *Commentary: Reforming school reform. Comments on multiple intelligences the theory in practice*. Teachers College Record, 95, 561-569.
- STERNBERG, R.J. eta WAGNER, R.K. (1986). *Practical intelligence: Nature and origins of competence in the everyday world*. New York: Cambridge University Press.
- THURNTONE, L.L. (1938). *Primary mental abilities*. Chicago: University of Chicago Press.
- VYGOTSKY, L.S. (1978). *Mind in society: The development of higher psychological processes*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- WALTERS, J.M. eta GARDNER, H. (1986). *The theory of multiple intelligence: Some issues and answers*. R. Sternberg y R. Wagner (Eds.), *Practical intelligences* (pp. 163-183). New York: Cambridge University Press.
- WILLIAMS, W.M., BLYTHE, T., WHITE, N., Li, J., STERNBERG, R.J. eta GARDNER, H. (1996). *Practical intelligence for school handbook*. New York: Harper Collins.

Haurrak, pailazoak eta pertsonaia ezagunak ezagunak protagonista. Norbanako harpidedunentzat prezio berezia.



Zatoz jolastera!



BIDEOA
Durangoko azokan
SALGAI